Iñigo Fernandez
Publizitateaz jardun dugu berarekin
KULTURA, 27

Mondrak lortu ditu ibarreko puntu bakarrak
Bergarak, UDAk eta Aloñak etxean galdu zuten, azken hauek 5-0
KIROLA, 14

Isasti Anaiak
Aloñara 1. igoera antolatu dute
KIROLAK, 21

ASTELEHENEKO
Goienkaria
ASTELEHENA • 2005eko martxoaren 14a • 2. urtea • 49. zenbakia • 0,90 euro

Nekazaritzarako puntako teknologia ikusgai Oñatin

'Sarekide' erakusketan nekazaritzarako baliagarria den tresneria aurreratua jarri dute ikusgai

Martxoaren 21era arte Olakua dorretxean egongo da zabalik Mendinetek eta Eusko Jaurlaritzak babesturiko erakusketa.

Informazioa eta sentsibilizazioa ditu helburu ekimenak; izan ere, teknologia berriek aukera asko sortzen dituzte nekazaritza alorrean ere. Sektorearen etorkizunak bide honetatik egingo duelakoan daude adituak. 2-3

NEKAZARIENDAKO
Ikastetxeak izan dira bisita egiten lehenengoak, baina nekazariei bereziki zuzendutako ekimena da

LAU ATALETAN BANATUA
Erakusketa lau ataletan banatuta aurkezten da, jarduera praktikoa eta prestakuntza nagusi izanik

PUNTAKO TRESNERIA
Internet, e-formazioa, estazio meteorologikoa eta Wi-Fi sistema daude ikusgai besteak beste

BISITA GIDATUAK
Bi pertsona daude erakusketan bisitariak artatu eta beharrezko azalpenak emateko

BARRUAN, ZIKLISMO GEHIGARRIA

MARIA AGIRRE

AZKEN ELUR ARRASTOAK APROBETXATU DITUZTE ZALEEK

Pirinioetako eski estazio bat dirudien arren, argazkia Urbian aterata dago. Oraindik gelditzen da ibarrean elurrik eta hori aprobetxatu dute zaleek asteburuan. Urbian oraindik metro beteko elurra dago, ia fonda estaltzerainokoa; Pello Zabalaren esanetan, aurten 274 litro elur bota ditu 24 egunetan. 7

Aspacek Debarroko egoitza inauguratu du Bergaran 7

Eguaztenean iritsiko da Korrika: Oñatitik sartuko da 6

AINTZANE AGIRRE

Emakumeen lanak Arrasateko plazan

Emakumeek egindako produktuak salgai ipini zituzten 50 postutan 5

GEUREAN

• Bazkari oparoarekin ospatu zuten Elgetako gaztetxearen urtemuga | 4
• Tokiko Agenda 21en gaineko hitzaldia egingo dute bihar, Aretxabaletan | 9

Extremadurako ogimamiek arrakasta handia izan zuten atzo, Bergaran egindako jaian | 6

TEKNOLOGIA BERRIAK ETA LANDA INGURUMENAREN ETORKIZUNA

LARRAITZ ZEBERIO

Erakusketa ikastetxeei, nekazariei zein artisauei zuzenduta dago. Irudian Oñatiko Txantxiku ikastolako 5. B gelako haurrak Olakua dorretxeko erakusketan.

'SAREKIDE' ERAKUSKETA I ARO DIGITAL BERRIAK EUSKAL LANDA INGURUNEAN AUKERA BERRIAK SOR DITZAKE

Nekazaritza lanetarako punta puntako tresneria ikusgai Oñatin

Informazioaren gizartea eta digitalizazioa landa guneetara ere iristen ari dira. Oraindik asko dago egiteko eta nekazariak informatzea da lehenengo pausoa

Larraitz Zeberio

Olakua dorretxean egunotan ikusgai dagoen *Sarekide* erakusketak, teknologia berriek nekazal sektorean ere aukera berri asko sor ditzaketela erakusten du. Zabaldu berria da Mendinet eta Jaurlaritzak babesten duten erakusketa ibiltaria. Lehen egunetan ikastetxeetatik hurbildu dira. Nekazariak itxaroten dituzte orain.

ETORKIZUNEKO BIDEA

Sarekide erakusketa martxoaren 21era bitartean egongo da Oñatin. Bertan, hainbat tresna berri erakusten dira eta baita nekazal jardueran ekarri ditzaketen onurak azaldu ere. "Zer diren eta zertarako balio duten jakin behar dute baserritarrek", azaltzen du erakusketan artatu gaituen Noemi Diez de Ceriok. "Ez badakite zer diren eta zein onura ekar dezaketen ez dituzte sekula eskatuko. Gaur egun teknologia berriek aukera handiak eskaintzen dituzte eta etekina ateratzen ikasi behar dugu".

PUNTAKO TRESNERIA

Erakusketan tresna berri asko dago. Esaterako, estazio agro meteorologikoa, zeinak faktore biologiko, agronomiko, kimiko eta bioteknologikoak modu egokian hartzen dituen. Gero, programa informatiko baten bidez produkzioaren gora-beherak edo gaixotasun arriskuak jasoko ditu nekazariak.

Internetek, bestalde, e-formazioa ahalbidetzen du. Egun Internet landa gune guztietara iritsi daiteke WI-FI sistemaren bidez. Kablerik gabeko Internet konexioa da eta antena bidez egiten da.

Internet baserri guztietara iristen bada eskaintzen dituen aukerak izugarriak dira. Informazio iturri amaigabea da, nekazariari web orrialde sektorialak kontsultatzeko aukera ematen diolako, datuak alderatu eta dituen arazoei konponbidea aurkitzeko.

Nekazaritzan ere teknologia berriek iraultza handia eragingo dute

Informazioa, sentsibilizazioa eta formazioa dira erakusketa honen helburuak

Web kamera jarriz gero nekazariak formazio ikastaroak etxetik jarraitzeko aukera izango du, eta medikuarekin harremanak ordenagailu bidez izan ditzake.

"Urte gutxi barru mugikorraren bidez kontrolatuko ditugu etxeko labea, garbigailua edo alarma", azaldu digu Noemik. Erakusketan etxe inteligente baten simulazioa erakusten dute.

Nekazaritza berri baten atarian gaude. Erakusketan doitasun handiko nekazaritza aurkezten dute. Negutegien kontrol elektronikoa, ukuiluen eta soroen urruneko segimendua eta internet bidezko salgaien merkaturatzea, esaterako.

ALVARO ETA NOEMI | ERAKUSKETAKO GIDARIAK

"Modernizatu beharra dago jarduerak aurrera egiteko"

Larraitz Zeberio

Erakusketa azaltzeko arduradunak dira. Nekazariek ordenagailuak ikustean oraindik ere atzera egiten dutela azaldu digute.

LARRAITZ ZEBERIO

Baserritarrek nola hartzen dituzte teknologia berri hauek?

Askotan erakusketara etortzea kostatu egiten zaie. Jende gazteak ezagutzen ditu teknologia berriak baina nagusiek ez. Ordenagailuak ikusten dituzte eta atzera egiten dute. Orduan, azaldu behar zaie zer den Internet, bertan informazio asko topatu dezaketela, informazio hori baliagarria dela, zer nolako zerbitzuak dauden, zer gauza egin diren dagoeneko eta zein onura ekar ditzaketen teknologia berriek.

Zeintzuk dira onura horiek?

Lana errazten dute eta dibertsifikazioa ahalbidetzen dute. Esaterako, nekazal turismo etxe batean Internet eskaintzea interesgarria izan daiteke bezeroentzat. Gaur egungo hotel ia guztietan eskaintzen da zerbitzu hori.

Aholkularitzarik jasotzen dute baserritarrek?

Erakusketa honetan teknologia berriak aurkezten dizkiegu ezagutu ditzaten. Lehen ideia bat egiten dute hona etorriz gero eta lehen hausnarketa baterako elementuak lortu. Eskualdez eskualde nekazaritza elkarte asko ari da lanean. Esango genuke badagoela orientazio eta aholkularitza zerbitzu hori eskaintzen duen erakunderik.

Esanguratsua iruditu zaizuen proiekturik ikusi duzue?

Gero eta herri gehiago ari dira WI-FI teknologia berria ezartzen. Interneterako haririk gabeko banda zabaleko sarbidea eskaintzen du eta aproposa da oso landa inguruneetarako. Oso zaila da kalitatezko Internet leku guztietara eramatea eta sistema hau ezarri dute Ataunen, Berastegin eta Errezilen, besteak beste. Parabolika baten bidez Internet konexioa baserri eta landa gune guztietara iristen da. Kable bidezko konexioa ez da beti bideragarria.

Teknologia berriak garestiak direla dio askok.

Batzuk bai eta beste batzuk ez hainbeste. Gainera, horretarako daude dirulaguntza programak. Web kamera txiki batek, esaterako 12 euro besterik ez ditu balio. Garestia da telefonoz deitzea? Internetez deitzea merkeagoa da adibidez.

> **"Teknologia berriak ez dira beti jendeak uste duen bezain garestiak"**

> **"Gazteek ez, baina nagusiek sarritan atzera egiten dute ordenadorea ikusi bezain laster"**

• HORRELA IKUSI DUTE ERAKUSKETA

SARA ETA NEREA | OÑATI

"Teknologia berriak ondo daude, baina ez ditugu oraindik hemengo baserrietan ikusten"

Bi gazte hauei asko gustatu zaie erakusketa. Badute baserritarrik familian, baina zaila ikusten dute haiek teknologia berrietan trebatzea. "Oso buru gogorrak dira eta nik uste oraindik denboralditxo bat pasatuko dela tresna hauek guztiak hemengo baserrietan erabiltzen hasi baino lehen", esan digute.

MAIDER | OÑATI

"Alarma sistema gustatu zait. Gure etxerako ere bai "

Maiderrek tresneria berri asko ikusi du erakusketan. "Alarma sistema interesgarria iruditzen zait. Baserrietarako modernoegiak iruditzen zaizkit aparailu hauek, ordea".

JOKIN, ANARTZ ETA MIKEL | OÑATI

"Dena oso modernoa da hemen. Arbel elektronikoa eta dantzarako makina asko gustatu zaizkigu"

Hiru gazte hauek atzera eta aurrera ibili dira Noemik erakusketaren berri eman dien bitartean. Tresneria berri asko ikusi dute batera. "Dena oso modernoa da hemen". Alarma sistema domotikoa interesgarria iruditu zaie etxerako eta arbel elektronikoa asko gustatu zaie. "Baserrietarako, berriz, tresna hauek modernoegiak direla uste dute". Ez dakigu baserritarrek jarriko dituzten".

• 'SAREKIDE' ERAKUSKETAN IKUS DAITEZKEENAK

ESTAZIO AGRO-METEOROLOGIKOA. Eguraldiaren datu guztiak hartzen ditu. Datuak ordenagailura pasatuz gero, landareek zenbat ur, ongarri eta intsektizida behar dituzten esaten digu, baita gaixotasun arriskuak adierazi ere.

E-FORMAZIOA. Internet bidez formazio ikastaroak etxetik jarraitu ditzakete nekazariek, internet, informatika eta ofimatika arloetan besteak beste. Irudian, haurrak ordenagailu bidezko dantza ikastaro batekin gozatzen.

WI-FI SISTEMA. Antena bidez Internet landa guneetara ere eraman daiteke. Horrela, teknologia mugikorrekin eta hari gabekoekin baserrietan eta nekazal etxeetan teknologia berrietan trebatzeko aukera zabaltzen da.

AINTZANE AGIRRE

Gaztetxe ondoan 40 lagun inguru elkartu ziren zapatu eguerdian urteurreneko bazkarian.

Bertsoak, trikitia, bazkaria, jolasak eta kontzertua gaztetxearen urteurrenean

Bederatzi urte dira Elgetan gaztetxea zabaldu zutenetik; gaur egun 15 neskak osatzen dute gazte asanblada

Irati Agirreazaldegi

Orain dela bederatzi urte zabaldu zuten Elgetako gaztetxea. Ordutik, herriko hainbat gaztek hartu du parte asanbladetan.

Gaur egun ere, barikuetan egin ohi dute batzarra eta 15 neska inguru elkartzen dira urteko ekitaldiak antolatzeko. Urteurreneko ospakizunetan ere neskak izan ziren nagusi.

Asteburu honetarako urteurren ospakizunak prest zituzten gazte asanbladako kideek eta jaigiroa izan da nagusi gaztetxearen inguruan.

Zapatu eguerdian, trikitilari eta bertsolariak lagun, poteoa egin zuten gazteek. Eguerdian bazkaritarako zuten hitzordua. Eguzkitik babesteko paperezko txapelak jantzi eta gaztetxe aldamenean bazkaldu zuten.

Bazkal ostean, giroa berotzeko Enaitz Alustiza, Jokin Labayen eta Iñigo Arzelusen bertsoak izan ziren eta Maite eta Miren trikitilarien doinurik ere ez zen falta izan.

Twister erraldoia ere gertu zuten; batzuek jolasean eta besteek begira barre nahikoa egin zuten. Arratsaldean berriz egin zuten poteoa eta jaia kontzertuarekin amaitu zuten gauean.

ALDAKETA

Batik bat kontzertuak izaten dira gaztetxekoek kanpora begira antolatzen dituztenak. Baina gaztetxea herriko gazteen topaleku den heinean, euren gaiak eztabaidatzeko lekua ere bada.

Bederatzi urtean gaztetxean gauzak aldatu direla esan digute asanbladakoek. "Jendea aldatu ahala asmoak aldatu dira, baita gaztetxearen inguruko iritziak ere. Hala ere, gaztetxea beti da herriko gazteen topaleku".

• ANTOLATZAILEAK ETA PARTE HARTZAILEAK GUSTURA

PAULA ETA MAIALEN | ELGETA

"Oso ongi pasatzen dihardugu. Eguerdiko poteoarekin hasi eta gauera arteko ospakizunetan hartuko dugu parte. Bazkal osteko jolasetan ere jardun dugu, antolatzen ere ibili baikara".

MAITE ETA MIREN | BERGARA ETA ANGIOZAR

"Hiru urtez etorri gara urteurrenean trikitia eta panderoa jotzera, eta gustura gainera. Oso jende jatorra aurkitu dugu eta berriz deituz gero etorriko gara, ondo hartzen gaituzte eta".

ASIER | ELGETA

"Bazkal ordurako etorri naiz eta kanpoan izan denez, bero handia pasatu dut. Gaueko kontzertura arte ibiliko naiz. Bestela ere, gaztetxean askotan egoten naiz".

• EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA EKIMENA

LARRAITZ ZEBERIO

EUSKAL ESKOLAREN ALDE JOLASEAN

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak euskal eskolaren aldeko eguna antolatu zuen eguenean. Ibarrean ere izan ziren ekitaldiak horren harira: Bergaran umeei zuzendutako hainbat ekintza egin zituzten –jolasak eta txokolate jana, esaterako– eta Aretxabaletan elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek.

Bost oinarri aldarrikatu zituen herri ekimenak: haur eskola euskalduna eta herritarra, eskolak euskaldundu beharra, euskal eskolak euskal curriculuma, lanbide eskola euskaraz eta Euskal Herriak euskal unibertsitatea.

• ERRETIRATUAK

MIRARI ALTUBE

NAGUSILAN AURKEZTU DUTE ARETXABALETAN

Eguenean, Nagusilan boluntario proiektua aurkeztu zuten Aretxabaletako Basotxo egoitzan Javier Arangurenek eta Tomas Atxak. 30 lagun inguru batu ziren eta bertaratutakoei Nagusilan zer den eta haren zereginak zein diren azaldu zieten.

Nagusilanen dauden boluntario guztiak erretiratuak dira eta euren denbora ezintasunen bat duten nagusiei edo bakarrik daudenei laguntzen ematen dute. Gaur egun, 600etik gora boluntario ditu Gipuzkoan eta bakardade egoeretarako doako telefono zerbitzua ere badu: 900 71 37 71.

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

EMAKUMEEN EGUNA | AZOKA IPINI ZUTEN ARRASATEN EMAKUMEEK EGINDAKO PRODUKTUEKIN

Emakumeek egindako produktuak plazara atera zituzten

Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako artisauek 50 postutan ipini zituzten salgai produktuak

Bitxiak, jantziak, larruzko gauzak, janariak eta beste hainbat gauza ikusi eta erosteko aukera izan zen

Irati Agirreazaldegi

Emakume Langilearen Egunaren aitzakian emakumeek egindako gauzekin azoka antolatzen du urtero Emakume Kontseiluak. Guztira 50 postu eta denetariko salgaiak ipini zituzten Arrasateko plazan zapatu goizean: bitxiak, lore lehorrekin egindako eskulanak, larruzko gauzak, arropak, janariak... Artisau lanak eta baserriko produktuak ikusi eta eros zitezkeen. Denak emakumeek egindakoak.

Erosi eta ikusteko aukeraz gain, Ekin Emakume taldekoek hamaiketakoa egiteko modua eskaini zuten. Izan ere, taloekin postua zeukaten ipinita.

Eguraldia lagun izan bazuten ere, eguzkia berotzen hasi artean ez zen jende askorik gerturatu plazara. Horrekin kexu zen Bedoñako Kontxita Berezibar. "Baserriko produktuak ekarri ditut baina salmentak iazkoak baino motelagoak izan dira. Guk nahiago dugu Sebero Altube plaza herriko plaza baino".

Eguraldia lagun izan bazuten ere eguerdi aldera arte jende gutxi ibili zen plazan

Plazan giroa sortzeaz gain, emakumeen lanak jendaurrean ipini zituzten

AINTZANE AGIRRE

Askotariko produktuak ikusteko eta erosteko aukera izan zen azokan, besteak beste, bitxiak.

Beste batzuk pozik zeuden, ordea. Zaldibartik etorritako Arianek bitxiak ipini zituen azokan salgai, eta salmentak ongi joan zitzaizkiola esan zigun. "Arrasatera lehen aldiz etorri naiz aurten eta gainontzean ere bigarren azoka dut hau. Gustuko dut horrelako gauzak egitea eta pozik erakutsi eta saltzen ditut".

ANTOLATZAILEAK POZIK

Jendea eguerdi partean azaldu zen plazara, eta 12:00etatik aurrera egin zituzten erosketa gehien.

Antolatzaileak gustura geratu ziren azokak izandako harrerarekin. "Pozik gaude, batetik postu guztiak bete ditugulako, eta hori zen gure erronketariko bat. Bestetik, Arrasaten giroa sortu da eta emakumeek egindako gauzak erakutsiz, zerbaitetan gabiltzala jendeari jakinarazi diogu", esan digu Maite Barreña Berdintasun teknikariak.

Batzuk saltzen, besteak erosten eta asko begira. Non aukeratua behintzat ez zen falta izan. Guztia eguzkipean eta musikaz lagunduta.

• EMAKUMEEN EGUNEKO OSPAKIZUNAK BERTSO ETA AFARI ARTEAN DEBAGOIENEAN

BERTSOLARIAK ARRASATEN. Urtero bezala, aurten ere bertso saioa antolatu dute Arrasaten Emakumeen Egunaren aitzakian. Zapatuan plazako taula gainean izan ziren Jesus Mari Irazu, Nerea Elustondo, Sustrai Colina eta Amaia Agirre bertsolariak. Unai Elizasu gai jartzailearen esanetara jardun zuten, eta saioaren aitzakia kontuan hartuta emakumeen inguruko gaiak ipini zizkien.

BINGO AFARIA. Aramaioko emakumeek bingo saioa eta afaria egin zituzten egubakoitzean. Arratsaldeko 19:00etan elkartu eta ordu eta erdi inguru eman zituzten bingoan jolasten. Irabazleek dirurik ez baina opariak jaso zituzten. Bingo saioaren ostean, nahiko goiz afaldu zuten. Menua ere egoki gertatua: menestra, txahal-koxkorra saltsan eta pastelak. Guztia, emakumeen arteko giro politean.

AFARIA ETA DANTZA AMUSKAKOEK. Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean batu ziren Amuska taldeko emakumeak zapatu gauean. Guztira, 40 emakume izan ziren afaritan eta bapo jan ostean, dantzarako aukera ere izan zuten. Aretxabaletako Iñigo Madinabeitiaren akordeoiak ipinitako doinuak aprobetxatuz, emakumeek dantzan jardun zuten goizaldeko 02:00ak arte.

AINTZANE AGIRRE

Ogi mamiak ez ezik txitxiburduntziak ere gertatu zituzten Corazon de Encina Extremadura Etxekoek.

Extremadurako ogi mamien 1.200 plater doan Bergaran

Ogi mamiez gain, Extremaduratik ekarritako ardoa, gozoak, urdaiazpikoa, gazta eta olibak probatzeko aukera izan zen

Irati Agirreazaldegi

Arrasateko Corazon de Encina elkartekoek antolatuta Extremadurako ogi mamien eguna ospatu zuten domekan Bergaran.

Eguraldi ona izan zuten lagun plazan. Benito Garcia Corazon de Encinako presidenteak esan zigunez, "badirudi Extremadurako giro epela ekarri dugula. Ogi mamien egunean beti egiten du eguraldi ona".

Elkartea 1990ean sortu zuten eta ordutik Extremadurako folklorea eta gastronomia zabaltzea izan dute helburu.

Fitxa

- **OGIAK:** 400 ogi erabili zituzten ogi mamiak egiteko.
- **PLATERAK:** Guztira 1.200 ogi mami plater banatu zituzten.
- **ARDOA:** 120 ardo botila saldu zituzten.
- **TXITXIBURDUNTZIAK:** 25 kilo haragi erabili zuten txitxiburduntziak egiteko.
- **GOZOAK:** Erroskilak, *pestiño*ak eta adarrak. 440 opil saldu ziren guztira.

Bergaran 1999an egon ziren azken aldiz eta orduan jatekoa ekartzeaz gain, dantza erakustaldia ere egin zuten.

ARTZAINEN JATEKOA

Ogi mamiak artzainek neguan jaten zuten platera zen. Ogia eta olioa ditu osagai nagusiak.

Gaur egun, ordea, edozein garaitan eta edozeinek jaten ditu. Bergaran Extremaduratik Euskal Herrira etorritakoek ez ezik, hemengoek ere izan zuten probatzeko aukera. Arrakasta izan ohi du ogi mamien egunak. Plazara jende asko gerturatu zen eta guztira, 1.200 plater banatu zituzten doan. Pitarroso eta Trampal ardoez lagundu zuten jatekoa. Txitxiburduntziak, urdaiazpikoa, gazta,olibak eta gozoak ere ipini zituzten salgai.

Korrika eguazten arratsaldean sartuko da Debagoienean

Korrika egunean petoak salgai egongo dira ibarreko herri guztietako plazetan lasterketa iritsi baino ordu erdi lehenago

Larraitz Zeberio

Korrikak ekitaldiz beteriko asteburua izan du. Kale antzerkiak, dantza saioak, herri jaialdiak, kontzertuak Arrasate eta Bergarako gaztetxeetan *Zazpi bekatu nagusiak* eta *Euskara Sencilloaren Manifestua* antzerki emanaldiak... Parte hartzea handia izan da eta orain, Korrikaren etorreraren zain dago debagoiendar ugari.

Korrika eguaztenean iritsiko da gurera. Oñatitik sartuko da 16:25ean. Ondoren Bergara (17:55), Elgeta (18:53), Kanpanzar (20:22), Arrasate (21:00), Aramaio 21:52), Aretxabaleta (23:00) Eskoriatza (23:18) eta Gatzagatik (00:00) igaroko da. Herri otan Korrika petoak salgai egongo dira lasterketa heldu baino ordu erdi lehenago.

HAINBAT EKITALDI

Korrika egunerako hainbat ekitaldi daude aurreikusita Debagoienean. Kale ikuskizunak antolatu dituzte arratsalderako Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Aramaion. Elgetan, Korrika txikia egingo dute giroa berotzen hasteko.

Iluntzerako, tartean korrika pasatuta, bertso poteoak egingo dira Aretxabaleta, Oñati eta Aramaion. Korrika afariak ere antolatuta daude hainbat herritan. Esaterako, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Elgetan.

Astean, berriz, pailazoak izango dira Elgetan. Hilaren 15ean, Pirritx eta Porrotxen *Patata, Patata* ikuskizuna egongo da Espaloian. Eskoriatzan martxoaren 19an txotxongilo ikuskizuna egongo da Huhezin.

LARRAITZ ZEBERIO

Bergaran festa giroa izan zen nagusi zapatuan. Dantzak herriko plazan.

Aspacek lokal berria du Bergaran

Debarro osorako zerbitzua ematen duen eguneko zentroa da eta 30 plaza eskaintzen ditu

Oihana Elortza

Bergarako Oxirondo plazan inauguratu zuen, egubakoitzean, Aspacek lokal berria. 260 metro koadro baino gehiago ditu, eta hainbat gune: sukaldea, aldagela, fisioterapia areto gisa ere erabiliko duten bulegoa eta egokitutako bainugelak eta komunak, besteak beste. Proiektuan 271.322 euro inbertitu dituzte; 30.000 ekipamenduetan eta gainerakoa obrako lanak egiten. Egoitza berri horrekin, eskualdeak 180 plaza ditu urrituen laguntzarako.

Egun, Debarro osoko lau laguntzaile eta beste 17 lagun joaten dira bertara lanera egunero, baina 30 plaza eskaintzen ditu eguneko zentro berriak.

OIHANA ELORTZA

Diputazioko, Bergarako Udaleko eta Aspaceko ordezkariak izan ziren inaugurazio ekitaldian.

AINTZANE AGIRRE

Aurreskua, herriko Batasuna, Segi, Etxerat zein Askatasunaren opariak eta jendearen txaloak jaso zituen Migelonek.

Atzo, domeka, egin zioten 'Migelon'-i ongietorria Bergaran

300 bat herritar zituen zain iluntzeko 19:15ean Bergarako San Martin plazan sartu zenean

'Migelon'ek presoen alde burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko eskaera egin zuen

Larraitz Zeberio

Ikurriñez inguratuta sartu zen domeka iluntzean Mikel Zubimendi *Migelon* Bergarako San Martin plazan. Bertan, 300 herritar inguru zituen zain jaioterrira ongietorria emateko prest.

Berriki egindako gose eta egarri grebaren ondorioz argal dago baina "ametsaren ildotik segitzeko prest" esan zuen.

Aurreskua, herriko Batasuna, Segi, Etxerat zein Askatasunaren opariak eta bertaratutakoen txaloak jaso zituen *Migelonek*. "Urduri nago", esan zuen, "hitzak ortopedikoak dira emozioak adierazteko".

Bere adierazpenetan presoak, iheslariak eta presoen alde lan isilean ari diren pertsona guztiak izan zituen gogoan eta Bergararrak iragan otsailaren 28an Uruguaiko ospitale batean zendu zen Juanjo Urrutia iheslaria nabarmendu zuen bereziki. "Madarikatu nahi ditut", esan zuen gainera, "egoeraz jabetu eta bihotzak itxi eta bizkarra emanda presoak usteltzen uzten dituztenak".

Egungo egoera politikoari buruz ere hitz egin zuen. "Jendea adoretu nahi dut" esan zuen, "jokoz kanpo utzi nahi izan dute ezker abertzalea baina joko berri bat proposatuz penalti egoerak sortu dira. Talentu eta indar handia dago hemen".

"Lasaitasuna behar dut emozio asko direlako, baina jendea gogor ikusten dut"

Bertaratutakoen izenean Bergarako Askatasunako kide batek ongietorri hitzak egin zizkion *Migelon*i. "Borrokarako erreferente izan zaitugu, lehen lerroko militantea eta gure esker ona adierazi nahi dizugu".

Ekitaldiari amaitzeko emateko manifestazioa egin zen Bergarako kaleetan. Aurretik, pankarta bat *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. "Lasaitasuna behar dut" esan zuen *Migelonek* manifestazioa hasiera baino lehen. "Emozio asko dira baina jendea gogor ikusten dut".

ZORTZI URTE KANPOAN

*Migelon*ek 1.997an egin zuen alde Bergaratik eta bi urte beranduago, 1.999ko martxoan, atxilotu zuten Parisen. Sei urte eman ditu Frantziako espetxeetan martxoaren 7an askatu zuten arte. Espainiako poliziaren esku utz ez zezaten gose greba hasi zuen otsailaren 16an eta egarri greba martxoaren 3tik aurrera.

Jarraiko bozeramaile eta Herri Batasunako legebiltzarkide ohia Madrilera deitua izan zen joan den astean *Jarrai, Haika, Segi* auzian deklaratzera.

• ESPAINIAKO TURISMO INSTITUTUA DEBAGOIENEAN

LARRAITZ ZEBERIO

ARANTZAZU, OÑATI ETA BERGARA BISITATU ZITUZTEN

Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta Espainiako Turismo Institutuko (Turespaña) zortzi pertsona Euskal Herrian barrena ibili dira asteburuan. Barikuan Gasteiz eta Arabar Errioxa ikusi zituzten. Zapatuan, berriz, Debagoiena bisitatu zuten. Arantzazuko santutegia eta Oñati asko gustatu zitzaizkien. Bergaran German Muruamendiaraz eta Valentin Egidazu zinegotzi eta turismo arduradunekin elkartu ziren bazkal aurretik. Irudian udaletxe aurrean.

Azken urteetako negu gogorrenaren arrastoak daude oraindik Urbian

Urbian metro batetik gorako elurra dago oraindik, eta denbora luzerako izango da elurra bertan fondakoek esan digutenez

Irati Agirreazaldegi

Asko eta asko dira ibarretik Pirinioetako eski estazioetara joaten direnak. Aurten egin dituen elurteak ikusita, ordea, urrutira joan barik Debagoienean bertan ere bada eskiatzeko aukera.

Bide bazterretan, oraindik elur pixka bat dago, ez eskiatzeko adina, noski; Arantzazun elurra badago eta are gehiago Urbian. Asteburua batek baino gehiagok aprobetxatu du bertan eskiatzeko, elur-erraketekin ibiltzeko zein jolasteko.

Urbiako fondan esan digutenez, 110 zentimetroko elurra dago bertan eta fondarako sarrera ireki bazuten ere ingurua erabat estalita dago oraindik. Gainera, euren arabera, denbora luzerako dago elurra Urbian. Noiz urtuko den ezin da jakin, hori eguraldiaren araberakoa baita. Baina, ikusitakoak ikusita negua luze joango da bertan, bai elurrari dagokionez behintzat.

Urbiako magalean dagoen Arantzazuko komentutik 1.920tik bidali izan dira eguraldiaren gaineko datuak Igeldoko Meteorologia behatokira. Arantzazun bertan 1.966tik ahalik eta zehatzen jasotakoak gorde dituzte.

"Arantzazun 24 egunez eutsi dio elurrak bere ekarriari; 274 litro elur bota ditu"

ELURRA 24 EGUNEZ

Arantzazun jasotako datuak kontuan hartuta Pello Zabalak aurtengo elurtearen berri eman du. "Abenduko azken astean erauntsi labur bat izan zen eta urtarrileko azken zortzi egunetan 90 litro elur bota zituen. Baina larriena otsaila eta martxoa bitartekoa izan da. Otsailaren 13an hasi eta hiruzpalau egunetako aterralditxoak tartekatu badira ere, 24 egunez eutsi dio elurrak bere ekarriari. 274 elur litro bota ditu, gizentzekoak denak. Hotzean, aldiz, tenperatura ez da hainbeste jaitsi, gehiena - 8º".

Aurtengoa, beraz, aspaldiko negu gogorrena izan da.

LAN ESKAINTZA

BERGARA

Hortz klinika baterako

LAGUNTZAILEA

behar da.

Eskatzen da:

• Euskara
• Informatika

Interesatuok deitu:
652 71 77 70 telefonora

FINANTZAK | 2004KO EKITALDIA "NAHIKO ONA" IZAN DELA AZALDU DU JUAN MARIA OTAEGI PRESIDENTEAK

Euskadiko Kutxak 67 sukurtsal irekiko ditu 2005-2008 epealdian

Iaz marka hautsi zuten bezero kopuruan. Datozen lau urteotan 405 bulego izatera iritsi nahi dute

M.B.

Eguenean, urteko batzarraren bezperan 2004. urteko balantzea aurkeztu zuten Euskadiko Kutxako arduradunek. Juan Maria Otaegi entitateko presidenteak esan zuenez, iazko urtea "nahiko ona" izan zen. Ekitaldia 1.065.000 bezerorekin itxi zuten eta 131,6 milioi euroko irabaziarekin, zerga aurretik; 2003an baino %12,9 gehiago. Kredituetan egindako inbertsioari dagokionez, %16,3 handitu zuen eta bezeroen gordailuak, berriz, %20,9. Kreditu inbertsioaren arloan, etxeko ekonomiara zuzendutakoak %18,5 handitu zituen Euskadiko Kutxak eta enpresetakoak %15.

Horrez gain, etxebizitzen promozioa nabarmen bultzatu zutela ere azaldu zuen Juanjo Arrieta zuzendari nagusiak prentsaurrekoan: "2004ko ekitaldian entregatuta dauden eta ari diregiten en etxebizitzen artean 7.604 finantzatu ditugu, eta horien %36 babestutakoak dira". Bestalde, gizartekonpromisora urteko irabazien %30 bideratu dutela ere gehitu zuen, "Hezkuntza eta Sustapen Fondoaren bidez eta Taldeari lagunduz".

Oro har, 2001-04 aldiko balantzeari dagokionez, esan zuen 470 milioiko mozkinak izan dituztela, nahiz eta interes tasek behera egin duten. Bestalde, gehitu zuen bikoiztu egin dutela etxeko ekonomietarako eta enpresetarako finantzaketa saldoa. Horrekin batera, hedatzeko estrategiaren barruan 63 sukurtsal berri ireki dituztela aitortu zuen, horietatik 54 Euskal Herritik kanpora.

MONIKA BELASTEGI

Juan Maria Otaegi Euskadiko Kutxako presidentea eta Juanjo Arrieta zuzendari nagusia prentsaurrekoan.

2005-2008 aldiko plan estrategikoa

Datozen lau urteetan mozkin handiagoa izatea espero dute, 703 milioikoa (%47 handiagoa). Negozioa ere %54 handitzea espero dute eta enpresa txiki eta ertainendako kredituek garrantzia handiagoa hartzea. Bestalde, 67 sukurtsal berri irekitzea nahi dute, 405 izatera iristeraino. Multikanalen bidez egindako operazioak ugaritzea ere nahi dute.

MCCren iazko datu batzuk ere aurreratu zituzten: 10.380 milioiko salmentak lortu zituen iaz (%7,5 gehiago) eta 3.656 lanpostu sortuta, 71.916 langilerekin itxi zuen urtea.

Ate irekien jardunaldia MUn

Guztira ate irekien 19 jardunaldi egingo ditu Mondragon Unibertsitateak bere sei campusetan ekainera bitartean

Irati Agirreazaldegi

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien fakultateak ate irekien jardunaldia egin zuen zapatuan. Etorkizuneko ikasleak, gurasoak, zein eskoletako orientatzaileak izan ziren bertan.

Hainbat sailetako buruekin iritziak trukatu, instalazioak ikusi eta proiektu batzuen berri jaso zuten Oñatiko fakultatera joandakoek.

HIZKUNTZA EREDUA

Titulazio bakoitzaren xehetasunak eman zizkieten eskolako ordezkariek interesatuei eta baita euren zalantzak argitu ere.

Honetaz gain, Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza eredua azaldu zuten. Honen baitan daude, besteak beste, enpresekiko harremana, lana eta ikasketak bateratzeko aukera eta ikasketa amaierako proiektuak.

AINTZANE AGIRRE

Oñatiko Enpresa Zientzien fakultatean azalpenak entzuteko aukera izan zuten etorkizuneko ikasleek.

Enpresa orrialdearen babeslea:

SEIN grupo taldea

MEMESA INDUSTRIA HORNIDURAK

OÑATI Tel.: 943 71 80 80 Faxa: 943 71 80 45
ARRASATE Tel.: 943 71 24 25 Faxa: 943 71 22 98
ARETXABALETA Tel.: 943 71 24 11 Faxa: 943 71 20 04

Albiste izango da

ESKORIATZA | BIGARRENA EGUENEAN IZANGO DA

Bihar, martitzena izango da Guraso Eskolaren lehenengo saioa

Bihar, martitzena hasiko da Guraso Eskola. Aurreneko saioa izango da eta eguenean, bigarrena. Bietan ladnuko duten gaia da *Dolu egoerak familian*. Guraso Eskolaren egitasmoak arrakasta izan zuen iaz. Programa berria zen herrian baina ibarreko hainbat herritan egin izan da aurrez ere. Hori ikusita, Eskoriatzako Udalak aurten berrzi antolatzea erabaki zuen. Martxoan apirilean eta maiatzean izango dira saioak, ordu eta erdiz eta landuko dituzte aste honetakoaz gain: haurtzaroa eta hizkuntza eta anai-arreben arteko hartu-emanak.

ARETXABALETA | 18:30EAN IZANGO DA

Lau mozio bozkatuko dituzte gaur, astelehena, osoko bilkuran

Gaur, astelehena, ohiko osoko bilkura egingo dute Aretxabaletako Udalean. 18:30ean hasiko da eta hamahiru gaiez osatutako zerrenda izango dute eztabaidagai. Besteak beste, lau mozio bozkatuko dituzte: batetik, estatus pilotikoaren alde, Euskal Presoak Euskal Herrira delakoa; bestetik, Abiadura Handiko Trenari aurre egin mozioa; hirugarrena Madrilen epaitzen diharduten gazte taldearen gainekoa da, eta laugarrena, Aralar taldeak aurkeztuko du Aretxa plataformaren gainean. Mozio horiez gain, bestelako gaiak ere bozkatuko dituzte osoko bilkuran: Beroako etxeen behe solairuan kulturarako lokalak egokitzea eta AP-1 autobidearen lanak jarraitzeko batzordea osatzea, esaterako.

BERGARA | URTEROKO GARBIKETARAKO ITXIKO DUTE

Igerilekua itxita egongo da egubakoitzera arte garbitzeko

Udaleko Kirol zerbitzutik jakitera eman dutenez, igerilekua itxita egongo da gaur hasi eta egubakoitzera bitartean. Urteroko garbiketa egiteko itxiko dutela azaldu dute, eta baita makina gelan hainbat hobenkuntza egiteko ere.

Horrez guztiaz gain, Kirol zerbitzuak jakitera eman du gaur, astelehena, hasiko direla Labegaraietako kiroldegi ondoan skate pistak eraikitzeko lanak.

ARETXABALETA | BIHAR, MARTITZENA IZANGO DA

Tokiko Agenda 21 ezagutzera emateko hitzaldia egingo dute

Tokiko Agenda 21 egitasmoa eta garapen iraunkorra zer diren ezagutzera emateko hitzaldia egongo da, bihar, martitzena, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

Aretxabaletako Udala Udaltalde 21-Debagoienako partaide da Mankomunitatearekin, Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailarekin, Ihoberekin eta Aldundiarekin batera. Udaltalde 21 egitasmoaren helburu nagusia Tokiko Agenda 21 bultzatzea da. Horren harira, hain zuzen, antolatu dute Aretxabaletako hitzaldia.

ARETXABALETA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Udako oporraldian lau ume saharar hartzeko familiak behar dituzte

Saharako lau ume hartzeko laguntza ematea erabaki du Udalak. Horretarako familiak behar ditu eta martxo bukaera arte dago aukera izena emateko.

Oporrak bakean programaren bitartez eta Nubi elkartearen laguntzarekin hartu du erabaki hori Udalak eta asmoa da ume saharrarek udako oporraldia gurean pasatzea. Orain, baina, ume horiek etxeetan hartuko dituzten familiak behar ditu, eta herritarrei deialdia egin die anima daitezen. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu Udaleko Gizarte Ongizate Sailera (943 71 18 62) edo Nubi elkartera (685 72 48 16).

Hitzorduak

MUNDUKIDEREN TRUKE PROGRAMAKO PARTAIDEEN HITZALDIAK |

Arrasaten eta Aretxabaletan egongo da eurekin berba egiteko aukera

Mundukideren truke programan etorri diren amerikarrek zenbait hitzaldi egingo dituzte datorren astean (irudian, aurtengo talde osoa). Gaur, astelehena, Harreman taldeak Mexiko, Nikaragua, Kuba eta Honduraseko lagun banarekin berriketaldia antolatu du Arrasateko Monterron jauregian, 19:00etan.

Bihar, martitzena, Aretxabaletan izango dira Kubatik eta Argentinatik etorritako bi parte-hartzaileak. Eurekin kafe-tertulia izango da Basabeazpin, 19:00etan, Hiruatx GKEk antolatuta.

Ekitaldi biotan, herri horietako egoeraren eta hizlarien proiektuen berri jasoko dugu.

ANTZUOLA |

• ***Heriotzaren gaia nola tratatu haurrekin* hitzaldia**
Berbaldi hori egingo du Patxi Izagirrek eguenean, hilak 17, eskolan, 18:00etan.

ARETXABALETA |

• **Demoak eta Zuzen taldearen gaineko hitzaldia**
Loramendi elkarteak antolatu du hitzaldi hori eguenerako, hilak 17, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

• **Biodantza doan probatzeko aukera bihar, martitzena**
Biodantza ikastaroak antolatu ditu Sadhana zentroak apirilaren 5erako, baina doan probatzeko aukera egongo da bihar, martitzena, 17:30-21:30 ordutegian. Izena emateko edo argibideetarako, deitu 679 44 12 29 telefono zenbakira.

ARRASATE |

• **Arrasate Musikalek batzar nagusia egingo du**
Etzi, eguaztena, batzartuko dira eskolako aretoan. Lehen deialdia 18:30erako da, eta bigarrena, 19:00etarako.

• **Pont d'Espagne-Panticosa irteerarako izenematea**
Pont d'Espagne-Panticosa zeharkaldia egingo du Besaide taldeak hilaren 19 eta 20an, eta izena emateko egunak dira gaur eta bihar, hilak 14 eta 15, euren egoitzan, 19:30-20:30.

• **Eraikuntza sektoreko langileendako ikastaroak**
Eraikuntza sektoreko langileendako bi ikastaro antolatu dituzte Arizmendik eta Hobetuz fundazioak: etxegintza obren neurketa eta ziurtapenen gainekoa, eta osasun eta segurtasun planen aplikazioaren gainekoa. Izenematea martxoaren 16an bukatzen da, eta honako telefonoan egin behar da: 943 79 03 14.

• **Prostituzioaren gaineko eztabaida, emakume txokoan**
Eguenean, hilak 17, izango da eztabaida hori emakume txokoan 19:00etan.

• **Arizmendiko ikasleek moda desfilea egingo dute**
Batxilergoko 1. mailako ikasleek egingo dute desfile hori egubakoitzean, hilak 18, Amaia antzokian, 18:30ean.

BERGARA |

• **Bideberriko kontzertuak antolatzeko batzarra**
Mendekoste jaietan kontzertuak antolatzeko batzar irekia deitu dute bihar, martitzena, kultura etxean, 18:30ean.

• **Emakumearen Asteko ekintzak Go Jam aretoan**
Tratu txarren gaineko berbaldia egingo du Emakundeko kide batek eguenean, hilak 17, 18:30ean. 20:00etan, berriz, *Mi vida sin mí* filma emango dute. Beke elkarteko eta Jameko Emakumeek antolatu dute hori guztia.

• **Emakumeei zuzendutako autoestimu ikastaroa**
Ikastaro hori Udal Gizarte Ongizate Sailak antolatu du. Izenematea zabalik dago udaletxean edo 943 77 91 25 telefonoan.

ESKORIATZA |

• **Familiako dolu egoeren gaineko jardunaldiak**
Familiako dolu egoeren gaineko berbaldia izango da, bi zatitan, bihar, martitzena, eta eguenean, hilak 17, kultura etxean, 18:00etan. Dagoeneko izena eman dutenei dago zuzenduta.

OÑATI |

• **DBHkoen gurasoendako hitzaldiak ikastolan**
Bi hitzaldi izango dira Txantxiku Ikastolan: bata, nerabezaroko aldaketen aurrean hartu beharreko jarreraren gainekoa; bigarrena, seme-alabei laguntzeko modua. Hilario Garrudok egingo ditu hitzaldiok hilaren 15ean eta 17an, 18:30ean.

• **Batasunaren ekitaldi politikoa Santa Ana aretoan**
Batasunak ekitaldi politikoa egingo du hilaren 18an, egubakoitza. Santa Ana antzokian izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Erredakzioaren oharra

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren azkeneko aleko kultura sailean argitaraturiko Arrasateko XV. Eskola antzerkiaren jardunaldiei buruzko informazioan errakuntza bat izan zela jakinarazi nahi dugu. Informazio horrek Juanito Barberan Arrasateko Udaleko hezkuntza eta kultura zinegotzitzat hartzen bazuen ere, lerro hauen bidez zera azaldu nahi dugu: bata, Juanito Barberan Udaleko hezkuntza teknikaria dela eta ez zinegotzia; eta bestea, Arrasateko Udaleko Euskara eta Kultura Sustapeneko Batzordearen zinegotzi arduraduna Ines Aldai Oruna dela.

• Bergarako Ibargarai kalea asfaltatu dute

Irakurle batek ondorengo txaloa helarazi digu: "Bergaran sartzeko hamar bat minutu behar ditugu azken egunotan, txoko guztietan zuloak irekita daude eta herri honetan. Lan guztiak batera egiten ari direla dirudi. Ibargarai kalea, baina, asfaltatu dute azkenean eta ez da gutxi. Denbora luzez oso egoera txarrean egon ondoren, konpondu dute hiriguneko kale erabilienetarikoa dena. Paris-Dakar rallya Bergaran bertan geneukan, alajaina!".

• Kiratsa Bergarako autobus geltoki berrian

Txistua bidali digu beste irakurle batek. "Autobus geltoki berria Torrekuaren parera eraman dute. Kolektorearen hodiak sartzeko lanak egin dituztenetik sekulako kiratsa egoten da leku horretan. Autobus erabiltzaileak garenoi askotan tokatzen zaigu kirats hori pairatzea eta, momentuan, ez du bero handirik egiten. Ez dut imajinatu ere egin nahi tenperaturak gora egiten duenean autobus geltokian zain egon behar izango dugunok nola ibiliko garen. Ezin da ezer egin?".

Sarean harrapatuta

Esaten den bezain erraza da Oñatin ligatzea?

Oñati *Kuba txiki* dela askotan entzun izan dugu. Batzuek diote erraza dela Oñatin ligatzea eta horregatik deitzen diotela horrela. Baina, benetan erraza da Oñatin ligatzea? Horixe izan da aste honetan *Goiena.net*-eko Oñatiko atalean egon den eztabaidako gaia. Oñatiar askoren iritziak jaso dituzte bertan. Gehienen iritziz ez da horren erraza ligatzea, batez ere oñatiarrekin. Hemen dituzue iritzi batzuk.

AUKERA HANDIAGOAK DITUZTE KANPOKOEK

Oñatin ligatzea, herri bertakoek esaten dutenez, ez da samurra. Izan ere, denek denen berri dute eta ez da batere samurra. Baina kanpokoak etortzen direnean, oñatiarrak ezagutzen ez dituztenez, samurragoa dela esaten dute.

Cowboy / www.goiena.net

EZIN DA ZAPATURA ARTE ITXARON LIGATZEKO

Aurreiritziena herri txiki denetan dago. Denok dakizkigu jendearen curriculumak eta horrek atzera botatzen gaitu. Gainera azkenaldian Oñatin ez dago hego haizerik (jaietan moduan) eta zientifikoki konprobatuta dago hego haizea dagoenean gehiago arriskatzen dugula.

Gertatzen dena da jendeak ez dakiela nola ligatu. Ezin dena egin hau da: Zapatura arte itxaron, kristoren mozkorra harrapatu eta norbait topatuko duzula pentsatu. Beldurrak kendu, kontaktatu zuk gura duzun pertsonarekin eta irten. Azken finean, ezezkoa badaukazu saiatu aurretik ere.

Ipar hazia / www.goiena.net

EZ DA ERRAZA LIGATZEA GUSTUKO DUZUNAREKIN

Ba ez dakit ligatzea samurra edo zaila ote den. Gauza bat da samur ligatzea aurrean jartzen zaizun edozeinekin, hau da, lehenengo harrapatutakoarekin. Beste kontu bat da zuk benetan gura duzunarekin ligatzea. Nik uste bigarren hau ez dela hain erraza.

14 / www.goiena.net

LIGATU NAHI BADA MUGITU BEHARRA DAGO

Azkenaldi honetan hormonak pil-pilean daude. Batez ere zapatuetan, eta goiko batek esaten duen moduan, kristoren mozkorra harrapatu eta saiatzerakoan ematen dugun penarekin beldurtu egiten dugu jendea.

Baina nik uste dut ez duenak ligatzen gura ez duelako dela, teknika txarra duelako edo tinbrea noiz jo zain dagoelako. Ligatzeko mugitu beharra dago.

Ipar haizia / www.goiena.net

LEHEN ASKOZ GEHIAGO LIGATZEN ZEN OÑATIN

Oñatin ez da ligatzen. Lehen bai, kristoren giroa egon zenean asko ligatzen zen... Orain aste bukaera batean ez da bat ere ligatzen, jaietan bakarrik ligatzen da baina lehen baino gutxiago. Gainera, ze neskarekin ligatu daiteke? Orain gazteegiak ibiltzen dira aste bukaeretan parrandan.

Laosti / www.goiena.net

TEORIA BADAKIGU, PRAKTIKA ONA FALTA DA

Oñatin ez da ligatzen. Nire ustez, gure izateko eran dago arazo larriena. Denok dakigu zer egin behar den teorian ligatzeko, baina praktikan gure jarrera nahiko patetikoa izaten da: Ezetz esango digutenaren beldurra, zer pentsatuko duten beldurra, barregarri geratuko garen beldurra... Horrela urteak joan eta urteak etorri. Eta norbaitek bi laztan eginez gero oso erraz erortzen gara bere besoetan.

Iagoba / www.goiena.net

www.goiena.net

Oñati *Kuba txiki* dela esaten dute batzuek. Baina, erraza da Oñatin ligatzea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

Halaxe erantzun digute

Alargun asko 500 eurotik beherako pentsioarekin bizi da. Berrikusi beharreko kopurua dela uste duzu? Zergatik?

ARANTXA URTZELAI | OÑATI

"Egoera ezberdinak daude. Alargun asko oso gaizki bizi da. Ni ezin naiz beraiekin konparatu, lanean nabil eta, baina senarra hil eta haren soldataren %40arekin gelditzea oso tristea da. Senarrak kotizatuta badauka zergatik kendu emazteari? Erdia baino gutxiagorekin gelditzen dira".

KARMELE KORTA | ONGIZATE TEKNIKARIA

"Diru gutxi da, askotan pertsona hauek bakarrik bizi dira-eta. Gabezia handiak dituzte eta kasu askotan beste laguntza batzuk eskatu behar izaten dituzte aurrera egiteko. Oinarrizko gabezia asko dituzte, tartean etxearen alokairua ordaintzea edo mantenua ziurtatzea".

NIEVES BEIZTEGI | ALARGUN ELKARTEA, BERGARA

"Pentsioak zertxobait hobetu dira baina oso gutxi. Alargun asko miserian bizi da eta erakundeen axolagabekeriak min handia egiten du. Sinadurak bildu izan ditugu, baina ezertarako ez. Gaur emakumeek ikasi egiten dute eta soldata bat irabazten dutenek beste egoera bat dute. Hobeto".

ANTONIO DIEZ | BASOTXO ELK., ARETXABALETA

"Desoreka handiak daude. Alargun batzuek bi pentsio jasotzen dituzte eta beste batzuek ezin izan dute etxea berotu aurtengo neguan. Non lan egin, noren alargunak diren eta zenbat kotizatu duten hartzen dira kontuan. Kasu asko berrikusi egin behar dira egoera oso larriak daudelako".

Egunkarietako harribitxiak

GUZTIA ETXEAN GERATZEN DA

Ekoiztu, esportatu, inportatu... Denetarik egiten dute estatuan bizi diren txinatarrek eta oso zuhurki. Euren sekretua, atzo *El Semanal*ek egindako erreportajean jasotzen dutenez, familia lotura da. 1990ean 4.000 ziren; gaur egun, 62.000. Hainbat txinatarren testigantza jaso zuten aldizkarian.

'El Semanal'
2005-03-13

CHINOS EN ESPAÑA

TODO QUEDA EN FAMILIA

Fabrican, exportan, importan... Y arrasan. Discretos, pero imparables. Su secreto: los lazos de familia. En 1990 sólo había 4.000. Hoy son 62.000. El colectivo más hermético de España muestra su verdadera cara.

ELURRA JOLAS, ELURTEA LEZIO

Aurtengo negua gogoratuko diren horietakoa izan da, zalantzarik gabe. Azken hamarkadetan gutxi dira horrelako elurte handiak eman dituztenak. Baina, izan, badira, baita handiagoak emandakoak ere. Horrela zioen atzo, Pello Zabalak *Berria*n egin zuen erreportajean. Zabalak zera dio: "Abenduko azken asteko erauntsi laburra ahaztu gabe, eta urtarrileko azken 8 egunetan 90 litro elur bota dizkigula aparte utzi gabe, lotu gatzaizkio azken erauntsi handi eta latzari: otsailaren 13a ezkero, 24 egunez eutsi dio ekarriari, elur eta hotz: 274 litro bota ditu elurrez gizentzekoak denak. Hotzean ez da hainbeste jaitsi: -8º gehiena egokitu denean". Aparteko beste negu batzuk ere aipatzen ditu Zabalak; 56koa eta 70ekoa, esaterako.

'Berria'
2005-03-13

IGANDEA

Elurra jolas, elurtea lezio

Tira, tira...



Ripa 'Deia' | 2005-III-13

Zorroztailea

Herri galdeketa

> *Elgoibarko herritarrek merkadilloa lekuz aldatzeari ezezkoa eman zioten erreferendum batean. (…). Kontsulta egin zuten, Elgoibar bizirik plataformak abiarazita, astero egiten den merkadillorako kokapen onenari buruzko iritzia galdetzeko. Guztira 3.378 elgoibartarrek eman zuten botoa herri-galdeketa honetan, Europako erreferendumean baino 224 gutxiagok.*
>
> **'Gara'** | 2005-03-13

Elena Laka

Duela hogei urte, unibertsitatean demokrazia eta parte hartzea ikasten genuenean, irakasten ziguten demokrazia zuzen eta parte hartzaile erreala Suitzako kantoi batzuetan besterik ez zela ematen. Sistema osoaren bitxikeria bat zen Suitza, Demokrazia ez omen zen egun osoa botoa ematen ibiltzea, arazo guztiei buruzko iritzia ematea, herritarrek aukeratzen zituzten agintarietan ordezkaritza uztea baizik.

Urte batzuk beranduago, teknologia berriak deiturikoak horrenbeste zabaldu zirenean, baten bati bururatu zitzaion baliabide berriek asko errazten zutela herri galdeketak egiteko aukera: nahikoa da botoi bati sakatzea jakiteko bakoitzari zer begitantzen zaion gai jakin baten gainean. Hala ere, gaur egun, nahiz eta teknologiak lagundu, boto elektronikoa ere bitxikeria baino ez da.

Noizean behin, temati, ateratzen da herritar talde bat, ordezkatzen duten agintarien borondatearen kontra, euren iritzia eman nahian herriko arazo baten gainean.

Elgoibartarrek argi asko adierazi dute non kokatzea nahi duten merkadilloa. Ez kale protestarik, ez indarrezko aldarrikapenik, ezta garrasirik ere, ereduzko galdeketa demokratiko batean agertu dute euren nahia.

Ikusteko dago orain zer egingo duten Elgoibarko agintariek: herria bitxikeriatzat hartuko dute, gehiengo handiago bat behar dela argudiatuko dute edo Kode Penala aplikatuko dute erreferendum ilegalak antolatzeagatik?. Sistema demokratikoak, ezagutzen den sistemarik demokratikoenak, horrelako bitxikeriak ere badituelako.

"Elgoibartarrek argi adierazi dute non kokatzea nahi duten merkadilloa. Ereduzko galdeketa demokratikoan agertu dute nahia"

"Ikusteko dago orain zer egingo duten Elgoibarko agintariek: kode Penala aplikatuko dute erreferendum ilegala egiteagatik?"

Egunkarietan irakurri dugu

'El Mundo'

ZAPATEROREN IRUDIA

Inkestatu gehienek uste dute PPk hobeto kudeatu dituela ekonomia eta terrorismoaren kontrako borroka –oinarri sendoak bozkatzeko orduan–. Aldiz, Zapaterori onartzen diote eraginkortasun handiagoa autonomia eta kanpo politiketan. Eta hori, azken urtean agertu den planteamendu sezesionista eta AEBkiko liskarra tartean direla.

Editoriala
2005-03-13

'Berria'

KORRIKAK MARRAZTEN DUENA

Korrika herriz herri dabilen honetan, geuk ere esan dezakegu Axularrekin "zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, betiere izan da euskaldunen etxea, pausalekua eta portua". Geuri dagokigu, beraz, Korrikak marrazten duena guztion etxe bihurtzea, eta hala egiterik ez bada, "euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak". Aspaldi esana dago.

Karmelo Landa
2005-03-13

'Gara'

M-11KO BIKTIMA EUSKALDUNAK

Angel Berrueta eta Kontxi Sanchizen bizitzak ez dira M-11ko zerrenda ofizialetan ageri. Hala ere, ez ziren hilko, hala egin behar zutenek ikerketari garrantzia handiagoa eman izan baliote aurreiritziei baino. Ahalegin berezia egin izan ez balute errua ETAri egozteko, ez zatekeen Berrueta eta Sanchiz heriotzara eraman zituen garra piztuko.

Editoriala
2005-03-13

'Deia'

HAUR BESOETAKOAK

Bagenekien PSOEren zati eta ordezkaritza besterik ez zela PSE, ezer berririk ez baitio EE luzagarri horrek erantsi. Ez dakite bakarrik plazaratzen. PSOEren haur besoetakoak dira. Haserretu egingo lirateke sukurtsalistak deituko bagenie. Eta horixe esan dio Patxi Lopezi Jose Blancok "Zapatero vasco" deitu dionean.

Mikel Atxaga
2005-03-13

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Irati Agerreazaldegi, Jokin Etxebarria, Jon Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Eskoriatzako neskek azken minutuetan egindako joko onari esker irabazi zuten | 19
• Titinek eta Pascualek 22-20 irabazi zieten Xalari eta Lasari Bergaran jokatutako partiduan | 20

AGR Arrasatek erraz irabazi zion Donibaneri eta igoera fasea jokatuko du | 18

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

REAL SOCIEDAD
2-1
NUMANTZIA

Real Sociedad | Riesgo, Lopez Rekarte, Labaka, Mikel Alonso, Karpin, Rossato (Brechet 89. min.), Xabi Prieto (Barkero 71. min.), Aranburu (De Paula 71. min.), Luis Alberto, Kovacevic eta Gari Uranga.

Numantzia | Juanma, Juanpa, Pignol, Otxoa, Tarantino, Ros (Silvio Gonzalez 35. min.), Palacios, Juanlu, Miguel, Miguel Perez (Moreno 81. min.) eta Merino (Tevenet 12. min.).

Golak: 1-0 Kovacevic zortzigarren minutuan. 1-1 Tevenet 48. minutuan. 2-1 Barkero 85. minutuan.

Epailea | Mejuto Gonzalez. Ondo ibili zen, baina Numantziako jokalari batek baino gehiagok txartelarekin bukatu behar zuen eta ez zen horrela gertatu.

Bestelakoak | 21.500 ikusletik gora Anoetan. Aspaldiko sarrerarik onena, eguraldia ere lagun zutelako ikusleek.

Bikain

RIESGO ETA BARKERO
Debako atezainak bi gelditu jarraian egin zituen Reala gaizkien jokatzen zebilenean. Eta haren ondoren, Aretxabaletakoak Realaren bigarren gola egin zuen. Eskerrak biei, bestela...

Kaskar

REKARTE ETA ARANBURU
Arrasatearra nahiko ondo hasi zen, baina lehen zatian egindako huts galant batetik aurrera dena gaizki irten zitzaion. Azpeitiarrak aspaldiko partidu txarrena jokatu zuen atzo.

Esandakoak

"Nik egindako lanak partidua irabazi ahal izateko balio izan badu, ezin esango dut pozten ez naizenik".

ASIER RIESGO | REALEKO ATEZAINA

"Riesgoren geldituak erabakigarriak izan dira, baina ez dugu zorterik eduki. Ez genuen galtzerik merezi".

MAXIMO HERNANDEZ | NUMANTZIAKO ENTRENATZAILEA

ARGAZKI PRESS

Jose Jabier Barkero aretxabaletarrak sartutako golak eman zion garaipena Realari atzokoan. Bigarren gola du aurten dagoeneko.

REALA | ASPALDIKO PARTIDURIK TXARRENA JOKATU ZUEN REALAK, BAINA ZORTEA IZAN ZUEN ALDE

Merezi gabeko garaipena Barkeroren golari esker

Jokin Etxebarria

Dagoeneko 11 puntura dauzka jaitsierako postuak talde donostiarrak, baina atzoko moduan jokatzen jarraitzen badu berriz ere gertu izango ditu postu horiek

Partiduko onena: garaipena eta jaitsiera postuak 11 puntura utzi izana. Bestela, Realak atzo kaniketan ere ez zuen jokatu. Hasierako ordu laurdena, eta azken bost minutuetan Barkerok –berriz Barkerok– sartutako gola bakarrik salba daitezke atzoko partidutik. Hori eta Riesgok jarraian egindako bi geldituak.

Atzokoan, Realak Numantziari talde onaren itxura eman zion. Eta hori arduratzeko modukoa da, Numantziak atzo sailkapeneko azkena zergatik den ederki erakutsi zuen eta.

Realak ez zuen irabazterik merezi izan, baina noizean behin zortea ere aldeko izan behar dela, eta atzokoan talde txuri-urdinak izan zuen alde.

Hasierako minutuak ikusita, ez zuen ematen Numantzia Realaren kontra ezer egiteko gauza izango zenik. Baina, Mallorcan gertatu zitzaion berdina pasatu zitzaion atzokoan ere. Numantziak berdindu egin zuen, eta irabazteko gai zela ikusi zen. Jokorik ez, baina gutxienez hiru puntuak lortu zituen Amorrorturen taldeak. Eskerrak Miguelen azken baloia langara joan zen, bestela... Karpini arrazoia eman beharko diot ; Realean jarrera falta dago euren burua salbu ikusten badute.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• KARPINEK ESAN BEZALA, REALAK JARRERA FALTA DAUKA?

MIKEL ETA ANDER | BERGARA

"Mailari eustearekin nahikoa dela uste dute jokalariek, eta horregatik dabil horren larri"

"Realak behera egitearen arrazoia entrenamenduetan intentsitate falta delako dela uste dugu. Horretaz gain, mailari eustearekin nahikoa dela uste dute jokalariek, eta horregatik dabil horren larri talde donostiarra".

MIKEL | OÑATI

"Realeko jokalariei Karpinek duen gatza falta zaie"

"Realeko jokalariei Karpinek duen gatza falta zaie. Helburu xumeekin konformatzen dira. Gogo gehiago jarri behar da".

ENEKO ETA EGOITZ | BERGARA

"Dirua kobratu eta ez jokatu; hori da Realekoek egiten dutena"

"Gure ustez, gehiegi erlaxatzen dira salbu ikusten direlako. Dirua kobratu eta ez jokatu; hori da Realekoek egiten dutena. Hala ere, gure ustez, Nihaten bajak ere eragina izan du taldean".

LANDER, JON ETA SERGIO | ESKORIATZA

"Karpinek arrazoi du. Gehiegi lasaitzen dira partidu bat irabazi eta gero"

"Gehiegi lasaitzen dira partidu bat irabazi eta gero. Eta gainera, gure ustez, Nihaten baja oso garrantzitsua da taldearentzat. Hala ere, Karpinek arrazoia duela uste dugu, jarrera falta dago. Kovacevicek adibidez, arreta gehiago jarri beharko luke".

JON, ANDER ETA GORKA | OÑATI

"Lehen mailan gelditzearekin konformatzen dira"

"Urtero gauza berdina gertatzen da. Ez dituzte helburuak ondo zehazten eta lehen maialan gelditzearekin konformatzen dira. Asko ikasi beharko lukete Athleticetik. Beti gora begiratu beharko lukete Realeko jokalariek, eta ez behera".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Bartzelona-Athletic	2-0
Malaga-Betis	1-2
Albacete-Deportivo	0-1
Vila-real-Espanyol	4-1
Getafe-Real Madril	2-1
At. Madril-Valentzia	1-0
Sevilla-Zaragoza	0-1
Racing-Mallorca	3-0
Levante-Osasuna	4-0
Reala-Numantzia	2-1

HURRENGOAK

Betis-Albacete
Zaragoza-At. Madril
Deportivo-Bartzelona
Numantzia-Racing
Espanyol-Reala
Mallorca-Sevilla
Valentzia-Getafe
Athletic-Levante
Osasuna-Vila-real
R. Madril-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**65**	28	20	3	5	53	18
2.**Real Madril**	**54**	28	17	8	3	48	25
3.**Vila-real**	**47**	28	13	8	7	48	25
4.**Betis**	**45**	28	12	7	9	45	36
5.**Espanyol**	**45**	25	13	9	6	35	33
6.**Valentzia**	**43**	27	11	7	10	40	29
7.**Sevilla**	**43**	28	12	9	7	32	33
8.**At. Madril**	**42**	28	12	10	6	32	25
9.**Deportivo**	**42**	28	10	6	12	38	35
10.**Athletic**	**38**	27	10	9	8	42	36
11. **Zaragoza**	**38**	28	11	12	5	33	40
12.**Reala**	**35**	28	10	13	5	36	40
13.**Levante**	**34**	28	9	12	7	33	40
14.**Malaga**	**34**	28	10	14	4	27	36
15.**Getafe**	**32**	27	8	11	8	27	31
16.**Racing**	**31**	28	8	13	7	29	40
17.**Osasuna**	**31**	28	8	13	7	35	51
18.**Albacete**	**24**	28	5	14	9	25	40
19.**Mallorca**	**24**	28	6	16	6	28	48
20. **Numantzia**	**20**	28	4	16	8	19	44

Kiniela

KINIELA

1. Levante-Osasuna	1
2. Bartzelona-Athletic	1
3. Albacete-Deportivo	2
4. Malaga-Betis	2
5. Getafe-R. Madril	1
6. Sevilla-Zaragoza	2
7. Racing-Mallorca	1
8. Reala-Numantzia	1
9. Vila-real-Espanyol	1
10. At. Madril-Valentzia	1
11. Salamanca-Sporting	1
12. Cadiz-Murtzia	2
13. Tenerife-Xerez	1
14. Cordoba-Almeria	1

Athletic

Bartzelonatik esku hutsik etorrita, Getaferengan pentsatu beharko da

Camp Nou zelaian ligako talderik onenaren kontra jokatu zuten eta merezitako porrota lortu zuten

Jon Unamuno

Athletic zelai guztietara joan behar da garaipenaren bila, baina, jakina denez, zelai batzuetan oso zaila izaten da zerbait positiboa lortzea. Horrelako zelaia da Camp Nou. Munduko jokalaririk onenetarikoak dituzte denboraldi honetan Bartzelonakoek eta oso zaila da irabaztea. Athleticek, gainera, asko nabari du Yesteren baja eta baloia mugitzeko zailtasun gehiago ditu. Azkenean 2-0 izan zen markagailua eta justutzat hartu behar da.

Eguaztenean Getafe hartuko du San Mamesen. Irabazi beharreko partidua da. Izan ere, denboraldi amaiera arte Athleticek ligan izan behar duen helburua hurrengo denboraldirako Europako sailkatzea izango da. Talde asko daude lehian, baina Athletic ere borroka horretan sartu behar da.

MENDILIBAR

Dagoeneko topatu dute Valverderen oinordekoa Lamikizek eta konpainiak. Aurkezpen ofiziala asteon izango da. Izugarrizko denboraldia egiten dihardu Eibarren eta horrez gain Athletic oso ondo ezagutzen du. Hori bai, liga amaitu arte bere burua Eibarrekin bakarrik izan dezala eskatu behar zaio. Hasieran ezaguna egin zen hankak osatzeko erabiltzen duen metodoa dela eta (izotzarekin dagoen uretan sartzea hankak). Ikusi egin behar hurrengo denboraldian metodo berak erabiliko dituen talde zuri-gorriarekin.

Athleticek Yeste gabe baloia mugitzeko zailtasunak ditu

Mendilibarrek denboraldi oso ona egiten dihardu eta Athletic oso ondo ezagutzen du

• ATHLETICEKO ZALEAK



JON UNAMUNO

ATSEKABEA NAGUSITU ZEN

Bartzelonaren bigarren golaren ondorioak dira argazkiaren irudiak. Talde hobea izan zen ligako liderra eta zelaian hori ikusi zen. Etxeberriak izan zituen aukerekin oihuak entzun ziren, baina oihuak gol bihurtzeko gogoz gelditu ziren. Eguaztenean izango dute hurrengo zita Bergarako peñakoek. Getaferen kontra irabaztea garrantzitsua da eta hori badakite zaleek. Bestalde, hasi dira Kopako final posiblean pentsatzen. Beharbada autobus bat Bergaratik irtengo da.

AINTZANE AGIRRE

Zelai erdiko jokoa eta zehazgabetasuna izan ziren nagusi zapatuko partiduan.

Azken hamar minutuetan irabazi zuen Mondrak

MONDRA
2-0
ZESTOA

Mondra | Ander, Markel, Illart (Eldin 82. min.), Kepa Merkader, Iker Lazpiur, Arkaitz (Argider 73. min.), Loiti, Iker Lopez, Inazio 45. min.), Muxi (Torres 56. min.), Keixi (Maikel 45. min.) eta Asier.

Zestoa | Aranguren, Gerenabarrena, Kindos, Iban Etxebarria (Arrue 76. min.), Jon Etxebarria, Ugarte, Aldalur, Uria, Zubimendi, Kortadi (Eizagirre 56. min.) eta Altuna.

Golak: 1-0 Asier. 2-0 Loiti.

Epailea: Etxarri jauna. Ez zen gaizki ibili, baina txartel gehiegi atera zituen ezer egon ez zen partidu batean.

Jokin Etxebarria

Partidu txarra izan zen zapatuan Atxabalpen jokatutakoa. Ikusleei ikustea gustatzen ez zaien horietakoa, taktikoegia. Zestoakoak atzean sartuta gelditu ziren ia partidu osoan, golik ez jasotzeko esperantzaz, eta erasoan aukeraren bat suertatzen bazen aprobetxatu guran. Mondra partiduaren jabe izan zen, baina hiru pase jarraian emateko gauza ez ziren izan Josu Zubiaren jokalariak, azken hamar minutuetara arte behintzat.

Bi aldiz heldu ziren atezainaren aurrera etxekoak, nahiko garbi, 80 minututan, eta Asier eta Muxi aurrelariak ez ziren gai izan gola sartzeko.

Gerora, entrenatzaileak egindako aldaketek ere ez zuten jokoa gehiegi aldatu. Zehazgabetasuna nagusi zen zelaian, eta ezer egin ez zuen kontrarioari ezin irabazi izateak nerbioz bete zituen Atxabalpeko zaleak.

AZKEN HAMAR MINUTUAK

Bat batean, dena aldatu zen. 83. minutua zen dagoeneko, eta partidua berdinketa batekin amaituko zela zirudienean, Maikelek zelai erdian jokaldi bikain bat egin zuen; honek emandako pase onari Asierrek amaiera ezin hobe eman zion, etxekoen lehen gola sartuz. Gero, Zestoakoek aurrera jo behar izan zuten, eta Loitik ederki aprobetxatu zuen hori bigarrena egiteko.

Aloñak ordainetan jaso zuen Mondrari emandakoa

BETI GAZTE
5-0
ALOÑA MENDI

Beti Gazte | Susperregi, Lasaga, Almandoz, Zudaire, Telletxea, Irazoki (Apezetxea 80. min.), Irigoien (Lamur 55. min.), Maritxalar (Arenas 80. min.), Rodriguez (Zamora 69. min.), Maia (Juanena 76. min.) eta Hernandorena.

Aloña Mendi | Elgarresta (Iñigo 45. min.), Olalde (Idigoras 31. min.), Igartua (Jagoba 45. min.), Barrena, Astola, Lopez (Garmendia 45. min.), Moiua, Sanchez (Aramendi 45. min.), Albizu, Arregi eta Astigarraga.

Golak: 1-0 Irigoien. 2-0 Irigoien. 3-0 Maia. 4-0 Irigoien. 5-0 Maia.

Epailea: Iker Perez. Ondo.

Asteleheneko Goienkaria

Bosgarren minuturako 2-0 galtzen hasten bazara, zaila da partiduari buelta ematea, eta gainera zelai erdian egin beharreko presioa gaizki egiten bada, are eta zailago. Joan den astean Mondrari 4-1 irabazi ondoren pozik ziren oñatiarrak, baina joan den astekoa ordainetan jaso zuten atzo Aloñakoek Lesakan.

"Emaitzak dena esaten du" izan ziren Aitor Oruetak esan zizkigun lehen hitzak, "urtean zehar partidu txar bat irteten ohi da, eta gaurkoan guri tokatu zaigu partidu hori".

Datorren astean berriz ere irabazi beharko dute oñatiarrek, zuloa gertu dago eta.

AINTZANE AGIRRE

UDAk baloi jabetza gehiago izan zuen, baina aurrean ez zen fin ibili.

UDArendako gehiegizko zigorra izan zen porrota

UDA
0-1
TOURING

UDA | Eriz, Lur, Erostarbe, Armendariz, Erik, Alvaro, Raul (Vadillo 69. min.), Juan (Iturbe 45. min.), Arriaga, Igartua (Andoni 76. min.) eta Imanol (Joseba 66. min.).

Touring | Salinas, Lopetegi, Muga, Esteban (Arrieta 72. min.), Dorronsoro, Perez, Auzmendi (Mitxelena 79. min.), Solana (Martinez 77. min.), Sanchez, Carrillo eta Munarri.

Golak: 0-1 Martinez.

Epailea: Asier Blanco. Epaileekin gerta daitekeen txarrena gertatu zen, hau da, adierazitakoarekin inkoherentea izatea.

Jon Unamuno

Partidu txarra izan zen atzo jokatutakoa. Hasieran UDA izan zen partiduaren jabe, baina erdiraketa onak egin arren, errematatzailea falta izaten zen. Touringek lehen zatiko erdi aldean bukatu zuen UDAren nagusitasunarekin.

Lehen zatiko amaieran etorri zen polemikarako jokaldia. Arriagari ustezko penaltia egin zioten eta epaileak txartela atera zion. Lehenago ere gauza beragatik txartel bat ikusia zuen Igorrek. Txartel gorria atera zion eta segidan lehen zatiari amaiera eman zion epaileak. Hala ere, Touringeko jokalarien harridurarako, bigarren zatian jokatzen jarraitu zuen. Sinesgaitza.

MARTINEZ IRTEN ETA GOL

15 minutu falta ziren partidua amaitzeko. Ordu arte Touringek izan zuen 5. minutuan aukera garbiena, baina ez zuten aprobetxatu. Martinez Solanaren ordez irten zen eta baloi loratu batekin ia gola sartu zuen. Erizek kornerrera bota zuen eta korner hartan etorri zen Martinezen gola.

Bergarak ezin izan zituen EHUko aurrelariak gelditu

BERGARA
0-2
EHU

Bergara | Markel, Zankada, Elkoroberezibar (Arana 37. min.), A. Berraondo, Lete (Alejandro 83. min.), Oskar, Loiola, Alzola (Mujika 70. min.), Imanol (San Vicente 51. min.), Zubikarai eta Otero (U. Agirre 70. min.).

EHU | Ramirez, Txarly, Manu, Josu, Kintana, Borda, Matiu, Zubillaga (Jaka 85. min.), De Miguel (Txoperena 88. min.), Giglio (Marrokin 61. min.) eta Zurutuza (Aranbarri 70. min.).

Golak: 0-1 De Miguel. 0-2 Zurutuza.

Epailea: Pedro Sasiain. Ondo.

Jon Unamuno

Bisitari gogorra izan zuen Bergarak zapatuan. EHU bigarren zegoen sailkatua eta printzipioz zelaian Bergara baino maila handiagoa emateko gai zen. Nahiz eta zelaia ez egon futbolean egiteko egoerarik onenean, donostiarrak nagusitu ziren.

Lehen zatian ez zen aukera garbirik ikusi ez Bergararen aldetik ezta EHUren aldetik ere. Bigarren zatirako laga zituzten golak.

NAHI, BAINA EZIN

Bi aldetan egon ziren aukerak bigarren zatian eta hortxe ageri zen Bergararen ahul gunea: punteria falta. EHUk, aldiz, sailkapenean goiko aldean zergatik dagoen erakutsi zuen eta bi gol sartu zituen. Hurrengo astean Hondarribian jokatuko dute, ligako kontrario zuzen bat.

Zankadak partidu ona jokatu zuen.

• SENIOR MAILAKO NESKAK

ARTXIBOA

BERGARA 1 - ANAITASUNA 2

Aukera gutxiko partidua izan zen zapatuan jokatutakoa. Lehenengo zatian joko gutxi egon zen arren, bana bukatu zuten. Bergararen gola Alkortak sartu zuen. Bigarren zatiak interes gehiago izan zuen. Azkoitiarrek aukera gehiago sortu zituzten eta korner baten ostean bat eta bikoa sartu zuten 25. minutuan. Berdinketa lortzeko aukera izan zuen Bergarak. Mireiari penaltia egin zioten, baina Oihanak kanpora jaurti zuen. Azkenean hiru puntuak Azkoitira joan ziren.

• GAZTEEN EUSKAL LIGA

88. minutuan berdindu zioten Aloñari, partidu polit batean

ALOÑA MENDI
2-2
ZUGATZARTE

A.G.

Sailkapenean berdindurik dauden bi taldek jokatu zuten partidua zapatuan.-

Partidua polita izan zen, joko onarekin. Lehen zatian, Zugatzartekoek joko gehiago erakutsi zuten, baloia gehiago mugitu zuten, baina lehen gola etxeko taldeak sartu zuen. Hala eta guztiz ere, kanpokoek, lehen zatia amaitu aurretik, markagailua berdindu egin zuten.

Bigarren zatian, Zugatzartekoek, baloi jabetza gehiago zuten, baina aukerak Aloña ari zen sortzen. Aukera hauetako batean, Aloñak bigarrena egin zuen. Aurrera begira jarraitu zuen etxeko taldeak, eta partidua irabazita zegoela zirudienean, kanpotarrek berdinketaren gola sartu zuten. Aloña saiatu zen, eta hirugarrenaren bila joan zen, baina ez zen gehiagorako denborarik izan. Puntu banarekin konformatu behar.

• BIGARREN ERREGIONALA

Jipoi ederra eman zioten antzuolarrek Donibaneri

ANTZUOLA
7-0
DONIBANE

A.G.

Zailtasunik gabeko partidua izan zuen Antzuolak zapatuan. Donibane taldeak egin zion bisita. Donibanekoak, azkenak doaz sailkapenean, eta oraindik ez dute punturik lortu.

Lehen zatian, hasieratik hasi ziren agintzen antzuolarrak, eta beraiena izan zen partiduaren kontrola. Etxeko taldeak lau gol egin zizkion lehen 45 minutuetan, eta partidua erabakita gelditu zen.

Bigarren zatian, Antzuolak erasoan jarraitu zuen eta Donibanekoak ezinean aritu ziren. Etxekoek beste hiru gol egin zituzten, hauetako bat Donibanek egin zuen bere atean.

Antzuolarren golak jokalari hauek sartu zituzten: kopa jokatzeko fitxatu berri duten Iban Letek hiru gol egin zituen, Xabi Azkaratek bi, Jon Ander Castrok bat, eta kanpotarrek bat egin zuten beraien atean.

• GAZTEEN LEHEN MAILA

Garaipena denboraldiko partidurik onenean

MONDRA
4-3
SAN INAZIO

A.G.

Arrasatearrek partidu borobila jokatu zuten zapatuan eta garaipen ikusgarria lortu zuten. Ohi denez, lehen zatian bigarrenean baino hobeto jokatu zuten. Hala ere, kanpokoak aurreratu ziren markagailuan. Etxekoak euren jokoa egiten jarraitu zuten eta hegalak ondo erabiliz, jokoa asko zabaldu zuten. Horrela, Aranzabalek eta Sanchezek markagailuari buelta eman zioten.

Bigarren zatiak txarragoak izaten ditu Mondrak eta hasieran behintzat hala izan zen. Kanpokoek buelta eman zioten markagailuari eta beste behin ere puntuek alde egingo zutelako ustea zabaldu zen zelaian. Baina zapatuan ez zen horrela gertatu. Lehenengo Aranzabalek penaltiz eta ondoren Beñaten jokaldiz markagailuari buelta eman zioten bigarren aldiz. Merezitako puntuak etxean gelditu ziren.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

ALOÑAREN DEFENTSA ZULATUTA ZEGOEN?

Duela bi asteburu Mondrari lau gol sartu ondoren, bazirudien ordura arte erasoan izandako arazoa konpondu zutela, baina nola ari da defentsa? Beti Gaztek aste honetan bost gol sartu dizkio. Lehen, golak sartzen zizkietelako ez zeuden gustura, eta orain, golak hartzen ohitu behar dute? Sailkapenean gora begira jarraitu nahi badute, defentsako lana hobetu beharra dago, eta futbolean esaten den bezala: eraso on bat defentsa on batetik hasten da.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**59**	28
2. **EHU**	**58**	28
3. **Ordizia**	**54**	28
4. **Zarautz**	**48**	28
5. **Real Union**	**48**	28
6. **Trintxerpe**	**42**	28
7. **Pasaia**	**38**	28
8. **Touring**	**38**	28
9. **Mondra**	**38**	27
10. **Mutriku**	**36**	27
11. **Hondarribia**	**35**	27
12. **Zestoa**	**34**	28
13. **Anaitasuna**	**34**	28
14. **Orioko**	**32**	28
15. **Aloña Mendi**	**32**	28
16. **Aretxabaleta**	**31**	28
17. **Beti Gazte**	**29**	28
18. **Bergara**	**28**	28
19. **Urola**	**28**	27
20. **Oiartzun**	**15**	28

Emaitzak

Aretxabaleta-Touring	0-1
Pasaia-Zarautz	0-0
Mondra-Zestoa	2-0
Beti Gazte-Aloña M.	5-0
Orioko-Tolosa	1-2
Urola-Anaitasuna	0-0
Ordizia-Real Union	2-5
Mutriku-Trintxerpe	2-1
Oiartzun-Hondarribia	0-3
Bergara-EHU	0-2

Hurrengoak

EHU-Aretxabaleta
Touring-Pasaia
Zarautz-Mondra
Zestoa-Beti Gazte
Aloña Mendi-Orioko
Tolosa-Urola
Anaitasuna-Ordizia
Real Union-Mutriku
Trintxerpe-Oiartzun
Hondarribia-Bergara

GAZTEEN OHOREZKO LIGA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Antiguoko**	**61**	25
2. **Zarautz**	**50**	25
3. **Zumaiako**	**47**	25
4. **Eibartarrak**	**45**	25
5. **Union Txiki**	**43**	25
6. **STL**	**42**	25
7. **Ordizia**	**40**	24
8. **Anaitasuna**	**38**	25
9. **Hondarribia**	**38**	25
10. **Aretxabaleta**	**33**	25
11. **Urola**	**32**	25
12. **Aldapetarrak**	**28**	25
13. **Mondra**	**28**	24
14. **Martutene**	**26**	25
15. **Aurrera Ond.**	**26**	25
16. **Mariño**	**26**	25
17. **Euskalduna**	**17**	25
18. **Dunboa Eg.**	**14**	25

Emaitzak

Zumaiako-Martutene	1-0
Union Txiki-Aurrera	2-1
Zarautz-Antiguoko	1-1
Dunboa Eguzki-UDA	1-3
Anaitasuna-Ordizia	0-1
Euskalduna-Urola	2-1
STL-Mariño	1-1
Hondarribia-Mondra	2-1
Aldapetarrak-Eibar	0-0

Hurrengoak

Aurrera-Martutene
Antiguoko-Union Txiki
UDA-Zarautz
Ordizia-Dunboa Eguzki
Urola-Anaitasuna
Mariño-Euskalduna
Mondra-STL
Bermeo-Amorebieta
Eibartarrak-Hondarribia
Aldapetarrak-Zumaiako

BESTELAKOAK

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Aloña Mendi-Zugatzarte	2-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Bergara-Kostkas Miren	2-2
Arrasate-San Inazio	4-3
UDA Arizmendi-Allerru	0-2

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Bergara-Beasain	1-2
Antzuola-Kostkas Miren	1-1

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Aloña Mendi-Kostkas Miren	2-1
Lagun Onak-Bergara	1-1
Eibar-Arrasate	1-0

LEHEN MAILAKO KADETEAK

Añorga-UDA Arizmendi	4-1

BIGARREN MAILAKO KADETEAK

UDA Arizmendi-Orioko	3-1
Zestoa-Antzuola	2-3

EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)

Almen UDA-Zumaiako	1-2
Allerru-Aloña Mendi	6-0
Bergara-Anaitasuna	1-2
Beti Ona- Mondra	3-0

EMAKUMEEN F-8 LIGA

Zumaiako-Bergara	1-2
Urola-Antzuola	4-3
Elgoibar-Almen Arizmendi	6-0
Urki-Almen UDA	2-1

INFANTIL OHOREZKO MAILA

UDA Arizmendi-Ordizia	2-0

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)

Urola-Bergara	1-2
Aloña Mendi-Mariño	3-1

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)

Arrasate-Eibartarrak	5-1
Arrasate-Ilintxa	7-0

INFANTIL TXIKI (KOPA)

UDA Arizmendi	Atsedena

INFANTIL F-8

Bergara-Aloña Mendi	5-5
Vasconia-Antzuola	3-4

ALEBINAK

Aretxabaleta-Eibar	4-3
Bergara-Arrasate	2-1
Elgoibar-Aloña Mendi	2-2

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **La Salle**	**14**	7
2. **Lasarte Oria**	**14**	7
3. **Amaroz**	**11**	6
4. **Antzuola**	**10**	6
5. **Urki**	**9**	7
6. **Zestoa**	**6**	7
7. **Donibane**	**0**	7

Emaitzak

Urki-Lasarte Oria	0-1
Antzuola-Donibane	7-0
Amaroz-La Salle	3-1
Zestoa	Atsedena

Hurrengoak

Urki-Lasarte Oria
Antzuola-Donibane
Amaroz-La Salle
Zestoa — Atsedena

Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

Areto futbola eta eskubaloia izan genituen protagonista Arrasaten

Areto futbolean laugarren jardunaldia jokatu zuten, eta eskubaloian bigarrena

Iturripen, Musakolan, Aramaion eta Almenen jokatu ziren partiduak

Partidu guztiak kiroldegi barruan izan ziren, eguraldi hotza egin zuen eta zapatuan

Jasone Zabala

Eguraldi hotza izan genuen zapatuan Arrasaten. Gaztetxoak areto futbolean eta eskubaloian aritu ziren. Partiduak goizeko 9:15 tan hasi ziren Iturripen, Almenen eta Aramaion.

Areto futbolean, laugarren jardunaldia izan zuten gaztetxoek. Partidu politak ikusteko aukera izan genuen, eta gazteak gogoz aritu ziren. Iturripen, talde mistoak aritu ziren jokatzen. Talde batzuk jokalari pila batekin zeuden, eta txandatzen ibili ziren partidu guztian zehar, horrela guztiek parte hartu ahala izateko. Baina beste talde batzuk, jokalari gutxirekin etorri ziren, eta ez zuten beraien artean txandakatzeko beharrik izan. Ume batzuek serioegi hartu zuten partidua, eta horrek hika-mika ugari eragin zituen.

Eskubaloian berriz, mutilek jokatu zuten bakarrik, eta beraiena bigarren jardunaldia izan zen.

GURASO ASKO PARTIDUETAN

Goizeko lehen ordutik asko izan ziren seme - alabak ikustera hurbildu ziren gurasoak. Gol askoko partiduak izan zirenez, gazte batek baino gehiagok gola sartzean, gurasoengana begiratu eta gola eskaini zien. Beraz, Jardunaldi polita ikusi ahal izan genuen zapatuan Leintz Bailarako gaztetxoen artean.

JASONE ZABALA

Almen E. Ainhoa Z., Yenni, Ainhoa B., Maddi, Kristina, Unai U., Jon, Unai E., eta Eñaut.

JASONE ZABALA

Gazteluondo. Miren A., Amaia, Miren E., Xabi, Mikel, Alex, Nerea, Maddi eta Ane.

JASONE ZABALA

Almen D. Eneko, Jokin, Javier, Jon, Xabier, Iñaki eta Ander.

JASONE ZABALA

San Viator 3A. Ane Z., Amaia, Mikel, Danel, Iñaki, Eneko, Jon G. eta Iker.

• HORRELA IKUSI DUTE GAZTETXOEK JARDUNALDIA

OIER ETA ALEX | GAZTELUONDO

"Gehien futbola gustatzen zaigu, eta oso pozik etortzen gara lagun artean partiduak jokatzera".

WENDY, LOREA ETA IXIAR | GAZTELUONDO

"Guri denetarik gustatzen zaigu. Wendyri futbola eta eskubaloia gustatzen zaizkio gehien, eta gu bioi berriz dena. Pozik etorri gara gaur ona".

JOKIN ETA UNAI | GAZTELUONDO

"Guri gehien futbola gustatzen zaigu, eta gaur futbolean jokatu behar dugunez, pozik etorri gara Iturripera".

IZASKUN, MAIDER, JAVIER ETA JOSEBA | SAN VIATOR TXIKI

"Eskubaloia eta futbola da gehien gustatzen zaiguna, eta gutxien atletismoa. Ez dugu logurerik izaten, eta gaur futbolean jokatu behar dugunez, gutxiago oraindik. Gainera gaur, lagun asko arituko gara elkarrekin jokatzen".

TXIRRINDULARITZA DEBAGOIENEAN 05

Pedalkaden sasoia hasi da

ARGAZKIA: AITOR LIZARRALDE

MUNDUKO TXIRRINDULARIRIK ONENTSUENAK OÑATIN EGONGO DIRA APIRILEAN

Ibarreko hiru klubek lasterketaz beteko dizkigute errepideak

Txirrindulari gutxiago egon arren, hiru klubek euren betiko lanarekin jarraituko dute

Jon Unamuno

Txirrindulariek euren prestakuntza aspaldi hasi zuten arren, orain politena heltzear dago: lasterketak. Gure ibarrean txirrindularitza oso gustukoa da eta horren adibidea urtero-urtero hainbat pertsonak nahita egiten duten esfortzua dago. Txirrindularitza zainetan sartuta duten pertsonak dira eta, eurei esker, etorkizun batean Frantziako Tourra korritu nahi duten gazte askoren ilusioa ez da eteten. Izan ere, klub baten atzean jende askoren lana dago. Klubaren funtzionamendua eramateaz gain, lasterketen antolakuntza ere egoten da. Eta lasterketen funtzionamendua ona izan dadin, hainbat pertsonaren lana beharrezkoa izaten da. Maila oso ona dago arlo horretan. Euskal Herritik kanpoko lasterketa askoren antolakuntza ikusita, hemen egoten dena bikaintzat jo daiteke. Txalotzekoa da kirol honengatik hainbatek egiten duten lana.

Bestalde, aurretik aipatutako pertsona horiek guztiak klub desberdinen esanetara egoten dira. Gure ibarrean hiru klub daude: Lokatza, Dorletako Ama eta Aloña Mendi. Urteak daramatzate eta euren eskuetatik ehunka txirrindulari pasatu dira urteetan. Aurtengo denboraldian ibarreko 79 txirrindulari ibiliko dira klub horietan. Hauetaz gain, Markel Irizar oñatiarra izango da profesional munduko gure ordezkaria. Bestalde, Jon Odriozolak aurtengo denboraldian laga du mundu hori eta hemendik aurrera Orbea taldeko zuzendari moduan arituko da oñatiarra.

HELBURU DESBERDINAK

Jakina denez, maila bakoitzak helburu orokor desberdinak izaten ditu eta, horretaz gain, txirrindulari bakoitzak bere helburu propioak izango ditu. Hala ere, norbanakoa dagoen mailara egokitzea eta hor egin behar den lana ondo egitea helburu orokor moduan har daiteke. Adina aurrera joan ahala, gero eta gogorragoa izaten da egin behar den esfortzua eta argi dago esfortzua ez dela bakarrik fisikoa izaten, psikologikoa ere izaten da.

Hortxe dago, hain zuzen ere, txirrindularitzaren gakoa: momentu gogorrenetan tinko eustea. Bestalde, txirrindularitzak une polit asko eskaintzen ditu: ondo egindako lanaren ondorioa, bizitzarako baliagarriak diren balore asko barneratzea...

Lagun giroa ere oso berezia izaten da. Elkarrekin denbora asko pasatzen dute eta, ondorioz, lagun onak egiten dira. Eta ez hori bakarrik. Beste herri batzuetako txirrindulariak ezagutzeko aukera egoten da eta gure herrialdea hobeto ezagutzeko balio izaten du. Hala ere, txirrindulari bakoitzak bere bidea egin behar izaten du, ibilbide guztiak desberdinak izaten dira eta. Horrela, txirrindulari bakoitzaren ibilbidean eragiten dutenen garrantzia ezinbestekoa da. Klubetan egiten den lanaren ondorioa izango da txirrindularien ikaskuntza prozesuaren norabidea. Txirrindularitzaren gaineko ezagutza gero eta handiagoa izan behar dute eta ezagutza horretan kanpoko eragileek erantzukizun handia dute. Zuzendarien ezagutzaz gain, beste esperientzia batzuen berri izatea oso positiboa izaten da. Urtero egoten dira hitzaldi desberdinak txirrindularitzaren inguruan, eta hauetan, txirrindularitzaren alderdi des-

Argazkian Aloñako alebin eta infantilak ageri dira. Euren aurkezpena egin aurretiko unea

Euskadiko Itzulia Oñatin amaituko da 2005ean

Apirilaren 4an hasi eta 8an bukatuko den itzuliak Oñatin izango du amaiera. UCI Pro Tourrek egindako sailkapenean, itzuli motzetako mailarik altuena du.

Azkeneko etapak bi sektore izango ditu. Goizekoa motza izango da eta helmuga Arantzazuko santutegian izango da. Ikusgarria benetan. Bigarren sektorea 9,3 km izango dituen erlojuz kontrako proba izango da. Usako eta hilerri aldetik pasako den ibilbidea antolatu dute, tekniko eta gogorra. Ikusgarria hau ere.

Markel Irizar, txirrindulari profesional bakarra ibarrean

Bigarren urtea du Markelek profesionalen munduan. Euskaltel taldeko txirrindularia pozik ageri da denboraldi hasiera honetan. "Almerian gustura ibili ostean, Setmanan parte hartuko dut eta gero, teorian, Euskadiko Itzulian egongo naiz.

Oñatin bukatzeak ilusio handia egiten dit; izan ere, nire txirrindulari bizitzan horrelako beste egoera bat ez da egongo". UCI Pro Tour dela eta, zera dio Markelek: "Asmakizun elitista da eta talde xumeak mespretxatzen ditu".

Gazteen mailan talde bakarra Debagoienean

Debagoiena Sumoficeko koloreekin bakarrik identifikatuko da aurtengo denboraldian. Bertan hiru eskolatako txirrindulariak daude eta guztira zazpi izango dira. Azken urte hauetan asko jaitsi da txirrindularien kopurua eta gazte mailan gertatzen dena adibide gisa har daiteke.

Hori dela eta, ibarreko zale guztien txaloak behar izango dituzte zazpi txirrindulari hauek. Gainera, talde ahaltsua osatu dute Igoitz Gabilondo eta Xabier Plazaola zuzendariek.

Zure bizikleta denda

- BH bizikleta finkoak
- BH ariketa-makinak
- Txirrindularitzarako osagaiak
- Bizikletarentzako gehigarriak
- Bizikleten salmenta eta konponketa

BH · CONOR · GIANT · MERIDA · SCOTT

ciclos i2 ACOBIS Bergara

ACOBIS elkarteko kidea

Arrizuri 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 41 63

AITOR LIZARRALDE

da, momentu garrantzitsuak dira eta urduritasuna aurpegietan islatzen da.

berdinak ezagutzeko aukera egoten da. Esperientzia desberdinak entzuten ikasten da eta horregatik jende desberdinen berbak entzutea aberasgarria izaten da. Mugak gainditu egin behar dira eta, ahal den neurrian, ikaskuntzarik egokiena eskaini behar zaie txirrindularitzaz gozatzen hasi diren gazte hauei. Hala ere, hau ez da beti erraza izaten. Elkarteetako jendeak denbora luzea xahutzen du eta gainera, denboraren poderioz, beti pertsona berak dabiltzala konturatzen da bat.

Elkarteetako jendeak nahikoa egiten dute jendearen ilusioa mantentzen

Amateur mailan zortzi lasterketa hasiko dira ibarreko herri desberdinetatik

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk arreta berezia ipiniko du txirrindulari denboraldian

LASTERKETAK NONAHI

Lasterketek garrantzi handia izango dute gure errepideetan. Amateur mailan zortzi lasterketa hasiko dira ibarreko herri desberdinetatik. Aipagarria da Lokatzako Txirrindulari Elkarteak antolatuko dituen bost lasterketak. Gazte mailak lau lasterketa hartuko ditu bere baitan. Hauetatik ikusgarriena Arantzazuko igoera izango da. Aurtengo denboraldian, gainera, gehigarri bat izango du lasterketa honek. Izan ere, gazteen lasterketa baino hilabete bat lehenago, EHko Itzuliko etapa bat bertan jokatuko dute. Bi mailen artean dauden diferentziak ikusteko aukera paregabea egongo da. Kadeteetan lau lasterketa egongo dira uztailaren 23an Azpeitian bukatuko den denboraldian. Maila honetako Aretxabaletako lasterketa polita izaten da; maiatzaren 21ean jokatuko da. Badaude denboraldi honetan beste lasterketa interesgarri batzuk gure errepideetan. Uztailaren 10ean eta 17an, Antzuolan eta Elgetan hurrenez hurren, amateur mailako bi lasterketa egongo dira. Antzuolakoa, Aiastui Peñakoak urtero ibiltzen dira proba antolatzen, eta Elgetakoa igotzaile onenendako bideratua dagoen proba izango da.

Ikusten denez, aurtengo denboraldian ere txirrindularitzaz gozatzeko aukera egongo da gurean. Elkarte guztietako arduradunak gogo handiarekin daude lasterketek suposatzen duten zoramenarekin hasteko. Azken finean, hori da euren pasioa eta nahiz eta lan asko eskatu, horrekin gozatzen dute inon baino gehiago.

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk arreta berezia eskainiko dio txirrindulari denboraldiari eta ibarrean egongo diren lasterketa gehientsuenen, denetan ez esatearren, jarraipena egingo dugu. Horrela, profesional mailan gertatuko diren berriak (EHko Itzulia...), amateur munduan egongo diren lasterketak (Gorlako igoera...), gazte mailetan egongo direnak (Uzarragako igoera...) edo kadetetako lasterketen berri (Aretxabaletako saria...) ASTELEHENEKO GOIENKARIAn topatuko duzue. Infantil eta alebinak ere ez ditugu alde batera lagako.

EGUTEGIA 2005

- **3/27:** Gorlako igoera Bergaran.
- **4/08:** EHko Itzulia Oñatin.
- **4/16:** Infantil, alebin Oñatin.
- **4/23:** Uzarragara igoera Antzuolan.
- **4/23:** Infantil, alebin Aretxabaletan.
- **5/01:** Kadeteak Bergaran.
- **5/08:** Arantzazura igoera Oñatin.
- **5/15:** Elite eta 23 azpikoak Bergaran.
- **5/21:** Kadeteak Aretxabaletan.
- **6/11:** Kadeteak Oñatin.
- **6/11:** Infantil, alebinak Arrasaten.
- **6/18:** Kadeteak Bergaran.
- **7/10:** 19-20 urtekoak Antzuolan.
- **7/16:** Gazte mailakoak Bergaran.
- **7/17:** Elite eta 23 urte azpikoak Elgetan.
- **8/16:** Elite eta 23 urte azpikoak Aretxabaletan.
- **9/04:** Elite eta 23 urte azpikoak Gatzagan.
- **9/09:** Gazte mailakoak Oñatin.
- **9/018:** 19-20 urtekoak Bergaran.
- **9/24:** 19-20 urtekoak Oñatin.
- **9/25:** Gazte mailakoak Aretxabaletan.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Martxoaren 27an jokatuko da Gorlako igoera proba ikusgarria.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Kadeteek 20 lasterketa izango dituzte denboraldi osoan.

IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak
•
Azterketa biomekanikoa
•
Kirol podologia
•
Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**

GOI MAILAKO TXIRRINDULARIAK HARTUKO DITU OÑATIK APIRILEAN

35 txirrindulari hartuko ditu bere baitan Aloña Mendi elkarteak

Gazte hauendako Markel Irizar eta Jon Odriozola goi mailako erreferentziak dira

Jon Unamuno

Pasa dira 30 urte Aloña Mendiko Kirol Elkarteak txirrindularitza saila sortu zuela. Ordutik hona gauza asko aldatu dira, baina bada zerbait aldatu ez dena: txirrindularitzarengatik pasioa. Oñatiko herriak beti izan du kirol honetarako zaletasuna eta horren erakusgarri da denboraldi honetan talde desberdinetan izango dituen txirrindulari kopurua. Nahiz eta gaur egun elkartetik kanpo egon, ezin daiteke ahaztu Markel Irizar eta Jon Odriozola herritarrak txirrindularitza munduan egiten ari diren lana. Lehenak Euskaltel taldean dihardu bigarren urtez eta bigarrena Orbea talde kontinentalaren zuzendari bilakatu da, urte askoan profesionaletan ibili ondoren.

35 txirrindulari egon arren elkartean, oñatiarrak 19 dira. Alebinetan, infantiletan, kadeteetan eta gazte mailan korrituko dute herriko txirrindulari hauek. Alebin eta infantiletan helburu nagusia umeak gustura ibiltzea izango da. Izan ere, adin hauek txirrindularitza ulertzen hasteko adinak dira. Garaipenek eta porrotek ez dute hainbeste inporta eta, alde horretatik, ez dira itsutu behar.

Kadeteen mailan, probak luzeagoak izaten dira, porturen bat edo beste igotzen da lasterketetan. Orokorrean, gorengo mailaren txirrindulari lasterketen itxura handiagoa hartzen duten probak dira. Garikoitz Bañosekin egon ginen eta, bere esanetan, "kadeteekin taldeko erlojuz kontrakoa gertatuko dugu". Gazte mailan bi txirrindulari oñatiar egongo dira: Joseba Itziar eta Gorka Anduaga. Beste maila batzuetan postu onak lortu dituzten txirrindulariak dira biak ala biak. Aurtengoa bigarren urtea dute gazte mailetan eta elkartean badago esperantza denboraldi polita egingo dutela.

ELKARTEAREN APUSTUA

Aurtengo denboraldiak izango du zerbait berezia; izan ere, Euskadiko Itzulia Oñatin amaituko da. Hasiak dira dagoeneko egin beharreko lanak egiten. Azken finean, apirilaren 8an amaituko da Euskadiko Itzulia.

UCI Pro Tourreko sailkapenean gorengo maila du Itzuliak eta ondorioz munduko txirrindularirik onenentsuenak ikusteko aukera egongo da. Gainera, benetan ikusgarriak izango dira egun berean egongo diren bi probak. Goizekoa motza izango da eta ondorioz oso urduria izango da. Arantzazuko santutegian bukatuko da goizeko proba hau. Arratsaldekoak 9,3 km izango ditu. Usako eta hilerri aldetik igaroko da eta oso teknikoa dela esan digute. Adibide moduan, kurba itxi baten ostean, sekulako aldaparekin topatuko dira.

19 oñatiar egongo dira errepideetan alebin, infantil, kadete eta gazte mailetan

INFANTILAK ETA ALEBINAK: LIZARRALDE KIROLAK

Atzean: Iker Arkauz, Iker Mugartza, Gorka Egaña eta Unai Barrena. **Aurrean:** Iñaki Mugartza, Iker Novoa, Asier Muñoz, Aritz Anduaga eta Ander Altube. Zuzendariak: Josu Egaña eta Mikel Irusta (argazkian falta dira).

KADETEAK: ULMA

Ezkerretik eskumara: Mikel Lizarralde (zuzendaria), Xabier Mugartza, Xabier Arnaiz, Julen Arakautz, Julen Elkoroiribe, Oier Olalde, Jorge Merino, Iñaki Madinabeitia eta Iñaki Igartua.

ALOÑA MENDI

- **SORRERA:** 1975
- **BAZKIDEAK:** 200
- **TALDE KOPURUA:** 3
- **AURREKONTUA:** 90.000 euro
- **TELEFONOA:** 943 78 15 79 (Pedro Irurtzun)

Aloña Mendiko txirrindularien babesleak:

tkv Logística

LIZARRALDE KIROLAK

aldekoa AGENTZIA

ALOÑA MENDI-TKV LOGISTIKA

Ezkerretik eskumara: Jon Bikendi (zuzendaria), David Hernandez (Gasteiz), Mikel Obregon (Tres Puentes), Rafael Farfan (Logroño), Xabier Gerrikaetxeberria (Gernika), Daniel Saenz (Logroño), Eddy Lopez (Laredo), Pedro J. Calvo (Ordizia), Kepa Varela (Bergara), Orkatz Amutxastegi (zuzendaria), Alberto Robles (Bilbo), Mikel Bidaurre (Lizarra), Beñat Garate (Basauri), Jonathan Loriente (Beasain), Andoni Agirre (Zumaia), Jabi Azkarate (Lazkao), Unai Arantzabal (Bergara), Agustin Agirre (Segura) eta Iker Amutxastegi (zuzendaria).

TKV Logistikak 19-20 urteko taldea atera du

Jon Unamuno

Amateur munduak ere tartea izango du gure ibarreko taldeen artean. TKV Logistika laguntzaile berria da taldearendako. Zuzendariak Iker Amutxastegi, Orkatz Amutxastegi eta Jon Bikendi izango dira. Iker Amutxastegi 2002 denboralditik dago Oñatiko taldean. Aipagarria da Oñatikorik ez egotea taldean. Hala ere, ibarreko bi txirrindularik defendatuko dituzte TKV Logistikaren koloreak: Kepa Varela eta Unai Arantzabal bergararrek. Hauetaz gain, beste 14 txirrindulari egongo dira. Tartean badaude Euskal Herritik kanpo bizi diren txirrindulariak. Iker Amutxastegiren esanetan, kanpoko hauek Mikel Lizarraldek Mauleonekin duen kontaktuaren bidez lortu dituzte.

Urteko egutegiari begira, taldeko arduradunek badakite urte gogorra izango dela euren mutilendako. Lehendakari txapelketetako lasterketetan parte hartuko dute eta Euskaldun Txapelketako proba batzuetan ere egongo dira. Lehenengoa Larrabetzukoa izango da: "Larrabetzun egingo dugu lehen lasterketa etahan profesionaletan aritutako Unai Elorriaga egongo da, adibidez", esan zigun Ikerrek. Espainiako Koparen probaren baten ere hartuko dute parte. Maiatzean Legazpin izango da proba eta Espainiako talderik onenak han egongo dira. Itzuliei dagokienez, Gipuzkoako bi itzuliez gain (Bidasoako Itzulia eta Goierriko Itzulia), beharbada Asturiasen ere beste itzuli batean parte hartuko dute. Itzuli hau 19-20 urte bitartekoendako bideratua dago.

Kepa Varela eta Unai Arantzabal dira ibarreko txirrindulari bakarrak

Ikerren esanetan, aurtengo denboraldian helburu nagusia txirrindulariak mailara egokitzea izango da eta ikaskuntza prozesuarekin jarraitzea. "Gazteen mailatik igo berri diren txirrindulari asko daude taldean eta lehenengo urtea oso gogorra izaten da. Gure gidaritza egongo da, baina azken finean eurak dira maila berria ezagutu behar dutenak. Lasterketetan askatasun osoa emango diegu eta eurek ulertuko dute maila pixkanaka-pixkanaka", azpimarratu zuen Ikerrek.

UNAI ARANTZABAL, ETORKIZUNERAKO APUSTUA

Beti egon ohi dira txirrindulari batzuk, aurreko urteko merituak ikusita, denboraldi txukuna egin dezaketen ustea egoten dela. Horixe da Unai Arantzabal bergararraren kasua. "Arantzabalek gazte mailan lasterketa asko irabazteaz gain, oso erregularra dela erakutsi zuen", adierazi zuen Ikerrek. Maila oso ona erakutsi du Unaik gazte mailan. Erlojuz kontrako probetan txukun aritu da eta lasterketak taktika aldetik ere oso ondo ulertzen ditu. Hala ere, salto kualitatibo eta kuantitatibo handia dago gazte mailatik amateur mailara. Oso gogorra izaten da lehen urtea; izan ere, herrialde desberdinetako txirrindulariekin lastertzen da, adin aldetik diferentzia handiagoak daude, lasterketek kilometro gehiago dituzte... Ez da itsutu behar TKV Logistika taldea eta nahiz eta emaitzak ez heldu, txirrindulari hauek ikaskuntza prozesuan daudela ezin dezakete ahaztu. Helburuak denborarekin aldatuko dira.

Helburu nagusia gure taldeko txirrindulariak mailara egokitzea izango da

Zazpi hilabetean ibiliko dira errepideetan zehar. Kirol gogorra da, eta horregatik, gure aldetik proba desberdinetan maillot txuriurdinak ikusten ditugunean, txalotzea besterik ezin dezakegu egin.

ANTOLATZEN DITUZTEN LASTERKETA KOPURU ALTUA DA AIPAGARRIENA

Gazte taldea izango da denboraldi honetako apusturik sendoena

Alebinetan, infantiletan, kadeteetan eta gazte mailan izango ditu taldeak Lokatzak

Jon Unamuno

29 urtez dihardute Lokatzakoek txirrindularitzaren alde lan egiten. Txirrindulari kopuru aldetik ez da garairik onena klubarendako, baina tinko jarraitzen dute euren lana egiten. Horrela, aurtengo denboraldian 15 txirrindulari izango dituzte euren lizentziapean. Hala ere, txirrindulariez gain, badira beste hainbat zale lizentzia Lokatzarekin ateratzen dutenak. Horrenbestez, 40 lizentzia atera dituzte denboraldi honetan. Lasterketa asko antolatzen dituen kluba da eta ondorioz, Federazioarekin duen harremana estua da. Laguntza instituzionalei dagokionez, Bergarako Udalak ematen duen laguntza gehien. Antzuolako Udalak laguntza sinbolikoa ematen du eta Elgetako Udalak aldiz ez du laguntzarik ematen.

Alebin eta infantiletan hamar izango dira txirrindulariak denboraldi honetan. Hauendako helburua ondo pasatzea izango da. Kadeteetan hiru izango dira txirrindulariak. Kopuru txikia da, baina, esan bezala, txirrindularitzak ez du beste garai batzuetan bezainbateko zaletasuna sortzen gazteengan. Iban Caballerok lan txukuna egin du orain arte eta denboraldi honetan ere bide bera jarraitzea espero da.

IBARREKO GAZTE TALDEA

Ibarreko txirrindulari desberdinak hartuko ditu bere baitan Sumofic taldeak. Bi arrasatear eta beste bi oñatiar egoteaz gain, Joseba Muguruza eta Asier Pelabad bergararrak daude. Taldeko zazpigarrena Gurutz Larrea antzuolarra da. Aurreko denboraldian postu oso onak lortu zituen Gurutzek eta aurtengo denboraldian gazte mailan onenen artean egotea espero da. Zuzendariak Igoitz Gabilondo eta Xabier Plazaola bergararrak dira. Maila handiko taldea da eta lasterketa askotan Sumoficeko txirrindulariek aurreran bukatuko dute. Uztailaren 16an Bergarako lasterketan ikusteko aukera egongo da, Santa Marinako lasterketan hain zuzen ere.

INFANTIL ETA ALEBINAK

Aitor Laskurain, Gorka Diaz, Xabier Arantzeta, Unai Retolatza, Unai Martinez, Pello Bilbo, Mikel Aristi, Jon Rivero, Julen De Dios, Mikel Gorrotxategi eta Gorka Etxezarreta.

KADETEAK

Iker Sanchez (zuzendaria), Xabier Martinez, Iban Kaballero eta Unai Markiegi.

GAZTEAK: LOKATZA-SUMOFIC

Ezkerretik eskumara: Igoitz Gabilondo (zuzendaria), Joseba Muguruza (Bergara), Joseba Itziar (Oñati), Ander Nafarrate (Arrasate), Asier Pelabad (Bergara), Antton Anduaga (Arrasate), Gorka Anduaga (Oñati), Gurutz Larrea (Antzuola) eta Xabier Plazaola (zuzendaria).

LOKATZA

- **SORRERA:** 1976
- **BAZKIDEAK:** 180
- **TALDE KOPURUA:** 3
- **AURREKONTUA:** 27.600 euro
- **TELEFONOA:** 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga)

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

IBARREKO MENDI BIZIKLETEN TALDE BAKARRA DUTE

Txirrindularien Amabirjinaren bedeinkapenaz ekin diote

Kadete mailan 12 txirrindulariz osatutako taldea izango dute Dorletako Amakoek

Jon Unamuno

Beste urtebetez, txirrindularien amabirjina den Dorletako Amaren bedeinkapenaz ekin diote denboraldiari leintz bailarako txirrindulariek. Ilusiorik eta lana ondo egiteko grinarik ez zaie falta gazte hauei eta izango dituzte lasterketa batzuk euren gaitasunak erakusteko.

Ez dira hainbeste urte pasa profesional munduan leintz bailarako txirrindulariak egon zirela (Joxe Miguel Elizburu edo Iban Sastre besteak beste). Gaur egungo egoera guztiz desberdina da. Profesionaletan inor ez izateaz gain, amateurretan ere ez dago inor. Gazte mailan Sumofic taldean bi txirrindularik dihardute (Ander Nafarrete eta Antxon Anduaga). Kadeteetan, bestalde, 12 txirrindulariz osatutako talde sendoa osatuta dago. Ezohikoa da halako kopuru handia egotea gaur egun, baina harritzen gaituzten albisteak halakoak baldin badira, ongi etorriak izan daitezela. Infantilen eta alebinen artean sei txirrindulari egongo dira denboraldi honetan. Mendi bizikletaren taldean bost txirrindulari egongo dira.

Azkarregi izan daiteke izen propioez hitz egiteko, baina gazte mailan jardungo duen Antxon Anduagaren ibilbidea interesgarria da. Aurreko denboraldian behin baino gehiagotan Gipuzkoako selekzioarekin aritu zen. Ander Nafarrete, bestalde, lehen urtekoa izanda, mailara egokitu beharko da lehendabizi. Denborarekin ikusiko da beste mailetan egindako emaitza onak gazte mailan ere erakusten dituen edo ez. Kadeteen taldeak 12 txirrindulari hartzen ditu bere baitan. Lehenengo urtekoak dira gehientsuenak eta esperientzia hartu beharko dute maila berrian. Izan ere, orain arte zirkuitu berari buelta asko ematen ibili dira lasterketetan eta hemendik aurrerako lasterketek beste itxura bat izango dute. Infantil eta alebinek ikasten jarraitu beharko dute. Lasterketak irabaztea edo ez irabaztea baino garrantzitsuagoa da maila hauetan lasterketetan ondo pasatzea eta txirrindularitzaz gozatzea. Lagunartean pasatzeko aukera polit bezala hartu behar dute. Azkenik, Ederra mendi bizikletako taldea babestuko dute Dorletako Amakoek.

GATZAGAKO LASTERKETA

Denboraldian zehar lasterketa asko antolatuko dituzte Dorletako Ama eskolakoek. Hala ere, bada tartean gogortasunagatik ikusgarriena izaten den bat: Gatzagako lasterketa. Elite eta 23 urte azpikoendako bideratua egongo da eta irailaren 4an jokatuko da. Goierriko Itzulia baino aste bat lehenago izanda, txirrindulari askok euren indarrak neurtzeko test gisa erabiliko dute. Ondorioz, lasterketa oso lehiatsua izango da. Maila bat beherago, irailaren 25ean Udazkeneko Kriteriuma jokatuko da Aretxabaletan. Bi sektore izango ditu lasterketak; lehenengoak 60 bat kilometro izango ditu eta bigarrena erlojuz kontrakoa izango da. Kadeteetan, Aretxabaletako lasterketak garrantzi handia izango du Dorletako Amako txirrindularien agendan. Argi dago txirrindularitza eskola geldi ez dagoela.

Zaila da gaur, urtero-urtero txirrindularitza eskola mantentzea eta horregatik laguntasunak ezinbestekoak izaten dira. Horregatik txirrindularien gurasoek ematen duten laguntza eskolaren funtzionamendurako ezinbestekoa da.

KADETEAK

Ezkerretik eskumara: Joseba Iglesias, Julen Galiano, Markel Diego, Aitor Otxoa, Joxemari Gallastegi, Iñigo Agirre, Ikeia Iborra, Xabi SIerra, Mikel Arriolabengoa, Alberto Lopez, Aitor Urrutia eta Aitor Etxebarria. Entrenatzailea Jose Javier Sedano (argazkian falta da).

Antxon Anduaga aurreko urtean Gipuzkoako selekzioan behin baino gehiagotan egon zen

Gatzagako lasterketaren gogortasunagatik denboraldiko ikusgarriena izango da

Txirrindularien gurasoek ematen duten laguntza eskolaren funtzionamendurako ezinbestekoa da

DORLETAKO AMA

- **SORRERA:** 1979
- **BAZKIDEAK:** 0
- **TALDE KOPURUA:** 3
- **AURREKONTUA:** 24.000 euro
- **TELEFONOA:** 943 77 03 95 (Jon Urrutia)

INFANTILAK ETA ALEBINAK

Ezkerretik eskumara: Josu Beitia (entrenatzailea), Markel Uriarte, Jon Ander Guerrero, Ander Anduaga, Jon Etxebarria, Martin Berrizbeitia eta Asier Urroz. Asier Bengoa entrenatzailea argazkian falta da.

EDERRA

Ezkerretik eskumara:
Igor Lazkano, Iñigo Roldan, Zigor Urain, Felix Zugasti eta Igor Vaz

KIROLEAN, BIDELAGUN
Helburuak eta asmoak egia bihurtzeko, baliabideak eta talde-lana dira beharrezkoak. Bizitzako beste hainbat arlotan bezala, kirolean ere bidelagun izango gaituzu.
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
BIDEGI

IRUDITAN

Entrenamenduak beharrezkoak dira partiduak hasi aurretik.

Gaztetxo honek ia lokarri guztia jan zuen. Urduri egongo zen?

Gaztetxoek adi jarraitu zituzten gelakideen jokaldiak.

Posible du gazte honek zapatila batekin partidua jokatzea?

MIKEL ETA LIDE |
GAZTELUONDO

“Gehien gustatzen zaiguna futbola da, eta gutxien saskibaloia. Oraintxe jokatuko dugu gure partidua, eta hasteko gogoz gaude”.

XABI G. ETA XABI M. |
GAZTELUONDO

“Futbola gustatzen zaigu gehien. Pozik etortzen gara, eta gaur gainera, lagun asko etorri dira”.

JOSU A., JOSU A. ETA AMAIA |
GAZTELUONDO

“Futbola da gehien gustatzen zaiguna, eta esku pilota gutxien. Gaur futbolean arituko gara, eta oso pozik jaiki gara gaur goizean; bestela, beste batzuetan, gehiago kostatzen zaigu ohetik jaikitzea”.

DANEL, MARKEL ETA GORKA |
SAN VIATOR TXIKI

“Atletismoa da gutxien gustatzen zaiguna, eta gehien futbola. Ez zaigu batere kostatzen zapatu goizetan jaikitzea, eta pozik etortzen gara lagun artean jokatzera”.

• LEHENENGO NAZIONALA

Jokalari garrantzitsuen falta asko igarri zen

Fertxuk, Enekok eta Korkostegik ez zuten jokatu eta piboteko postua herren gelditu zen

ARRIKRUTZ
26-29
SA FA CATESA

Arrikrutz | Biain, Galarza (1), Joseba (6), Pata (1), Zelaia (2), Jose Manuel, Rafa (3), Agiriano, Elgarresta (2), Gari (5), Perosterena (6), Zurutuza, Eneko eta Erik.

Sa Fa Catesa | Jose Luis, Sergio (2), Barcena (1), De Lucas (1), Andres (1), Ricardo (3), Enriquez (2), Oscar (5), Miguel (3), Daniel (4), Mario, Antonio (4) eta Marcial (3).

Golak bost minuturo: 3-3; 4-6; 6-9; 7-12; 9-13; 13-14; 14-17; 17-19; 20-20; 20-24; 21-27; 26-29.

AINTZANE AGIRRE

Azkeneko minutuetan lortu zuten madrildarrek gol diferentzia handiena.

Jon Unamuno

Hasiera batean partiduak ez zuen itxura ona. Batetik Arrikrutzek zituen baja garrantzitsuak zeuden; eta, bestetik aurrean Sa Fa Catesaren mailako talde bat egoteak zailtasun berezia ematen zion partiduari.

Etxekoek aldaketak egiteko jende gutxi zuten arren, lehenengo 45 minutuetan partiduan sartuta egon ziren. Horrela, 20-20 markagailuak ilusioa piztu zuen. 15 minutu falta ziren eta mirarian sinisten hasi ziren jokalariak eta zaleak. Momentu horietan igarri ziren diferentziak. Oscarrek bi gol segituan sartu zituen eta kantxan sumatzen zen baikortasunak alde egin zuen. Poliki-poliki abantaila handiagoa lortzen hasi ziren madrildarrak eta irabazteko esperantza galtzen hasi zen.

JOKALARI GAZTEENDAKO AUKERA AZKEN MINUTUETAN

Partidua galdutzat eman zuenean, Txusek aulkian zeuden jokalari gazteei jokatzeko aukera eman zien. Lehenengo Agiriano irten zen jokatzera eta ondoren Pata. Azken hau irribarre batekin joango zen etxera; izan ere, partiduko azken gola berak sartu zuen.

Hurrengo astean Zumaian jokatuko dute oñatiarrek, Pulporen kontra hain zuzen ere. Gero eta partidu gutxiago geldi-tzen dira liga amaitzeko eta bi puntuak lortzea ezinbestekoa izango da.

• LEHEN TERRITORIALA

AINTZANE AGIRRE

AGR ARRASATE 31 - DONIBANE MAJESTIC 24

Azkeneko jardunaldia zuten atzokoa lehen territorialean. Arrasaten jokatu zuten bi taldeek ez zuten ezer jokoan. Izan ere, bai etxekoak bai Donibanekoak igoera faserako sailkatuta zeuden. Hala ere, ikuskizun polita eman zuten bi taldeek eta gol ugari eskaini zituzten. Lehen zatian kanpokoak nagusitu baziren ere, azkenerako etxekoek markagailua berdintzea lortu zuten. Bigarren zatian aldiz, AGR Arrasatekoak, defentsa on batean oinarrituz, partiduko jabe egin eta egundoko jipoia eman zieten kanpokoei.

• GAZTE NESKAK

AINTZANE LIZARRALDE

VERKOL ALOÑA 13 - URDAIBAI 16

Nahiz eta galdu, partidu ona jokatu zutela aitortu zuen Jabi entrenatzaileak. Sailkapenean Urdaibai goiko postuetan dago eta hori jokoan gehiago igarriko zelako ustea zegoen. Hala ere, aurrealdean bakarrik gailendu ziren bizkaitarrak. Defentsan oso ondo jokatu zuten oñatiarrek eta horren ondorioz, minutu askoan partiduan sartuta egon ziren. Aurrean izan zituzten hutsegiteak eta golak sartzeko zailtasun asko izan zituzten. Hortxe joan zen partidua. Gainera, amaieran egin zuten presioa dela eta, gol asko errazegi jaso zituzten.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergararrek ezin izan zuten garaipena lortu Donostian

EGIA
32-25
BERGARA

A.G.

Denboraldiko bigarren garaipena lortu ezinik dabil Bergara. Zapatuan Donostian izan zuten partidua, sailkapenean, eurak bezala, behe aldean dabilen Egia taldearen aurka.

Beti bezala, partidua ederki hasi zuten Landerren mutilek, lehen zatian intentsitatea erakutsi zuten, eta bi goleko abantailaz joan ziren irabazten. Bigarren zatian berriz, bost minutu txar izan zituzten, eta Egiak egoera hori aprobetxatu zuen markagailuan alde egiteko. Amaieran bergararrek presioa egin zuten, baina ezin irabazi.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIAKO LIGA
Arrikrutz Oñati-Sa Fa Catesa 26-29

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA
Egia-Bergara 32-25

LEHEN TERRITORIALA
AGR Arrasate-Donibane 31-24

BIGARREN TERRITORIALA
Arrasate Atsedena
Elgoibar-Aloña Mendi 24-19
BKL / CAF-Bergara 25-29

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
I.E.S Construc.-Verkol Aloña 27-18

GAZTE MAILAKO MUTILAK
Gatz Museoa Jakion-Aitxuri 17-15

GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Verkol Aloña-Urdaibai 13-16

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Zahara Kafetegia-Arrasate 38-3
Arrate-Bergara 26-20

KADETE MAILAKO MUTILAK
Donibane-Aloña Mendi 20-47
Bidasoa Irun-Bergara 28-25

KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Verkol Aloña-Urdaibai 17-12

INFANTIL MUTILAK
Arrasate-La Salle 25-24
Aloña Mendi-Egia b.b.

INFANTIL NESKAK
Aloña Mendi-Oarsoaldea 30-4

• BIGARREN MAILA (JAITSIERA FASEA)

Azken laurdena, erabakigarria

Partidua oso berdindua izan zen, baina azken laurdenean egindako joko bikainak etxekoei beharrezkoa zuten garaipena eman zien

ESKORIATZA
73-66
ONCINEDA

Eskoriatza | Usabiaga (3), Laborda (10), Gomez (2), Alarcia (6), Sebastian, Murillo (15), Etxeberria (22), Soriano, Exposito (12), Etxebarria (3) eta Romera.

Oncineda | Sanz, Sanchez, Elbusto, Urabayen (1), Ferandez, Garriz (24), San Martin (18), Alvarez, Ugartondo (7), Martinez (3) eta A. Martinez (13).

Laurdenetako emaitzak | Lehenengo laurdena 17-16. Bigarren laurdena 33-32. Hirugarren laurdena 57-50. Laugarren laurdena 73-66.

Jokin Etxebarria

Eskoriatzako neskek partidu bat irabazteko beharra zuten. Eta zapatuan lortu zuten. Azken partiduetan nahiko zorte txarra izan eta gero, Oncinedaren aurka azken laurdenean egindako jokoari esker irabazi zuten. Aurretik lasaitasunez jokatzen jakin zuten, eta horrek eraman zituen Fernando Rasoren neskak garaipenera.

Hala ere, ez zen partidu erraza izan. Asko sufritu zuten etxekoek. Izan ere, markagailuan abantaila hartzea ia ezinezkoa egin zitzaien partidu osoan. Lehen zatian gainera, segituan bete ziren falta pertsonalez. Eskerrak Lizarrakoak arlo honetan fin ibili ez ziren, bestela, seguruenik, beste porrot batez hitz egiten ibiliko ginateke.

Hirugarren laurdena ere, partidu guztia bezala, oso berdinduta hasi zen. Baina Labordak sartutako hiruko batek etxekoak aupatu zituen, eta defentsa aldaketa batekin –zonakakoan jarriz– eta kontraeraso eta eraso azkarrekin, gutxika-gutxika abantaila handitzen joan ziren. Ordura arte kanpokoak errebotean nagusi izan baziren ere, zonakako defentsarekin ezin izan zuten, nahiz eta hiruko batzuk sartu zituzten –hauek sartuta mantendu ziren partidu barruan–. Gainera, noizean behin, etxekoek kantxa osoan presioa egiten zuten, eta horren bidez baloi asko lapurtu zituzten. Hala ere, etxekoek lortu zuten abantaila ez zen handiegia izan eta Lizarrakoek bizirik jarraitu zuten.

AINTZANE AGIRRE

Azken minutuetako lasaitasunari esker irabazi zuten etxekoek.

AZKEN LAURDENA

Laugarren laurdena ez zuten batere ondo hasi etxekoek. Hiru baloi jarraian galduta, Lizarrakoek buelta eman zioten markagailuari. Hala ere, etxekoak ez ziren urduri jarri eta markagailuari eusten zioten. Etxeberriak sartutako saskiratze bati esker berriz buelta eman zioten markagailuari; handik aurrera, baloia ongi mugitu zuten eta Oncinedakoak taula azpian egiten zituzten hutsak aprobetxatuz, gutxika-gutxika abantaila handitzen joan ziren. Lasaitasunez jokatuz, garaipena etxean gelditzea lortu zuten.

• SENIOR MAILA

Jipoi galanta eman zieten bergararrek eibartarrei

CANDY BERGARA
81-51
AMETSA

A.G.

Partidu erraza izan zuten bergararrek zapatuan. Eibarko Ametsa talde beteranoa zuten aurkari.

Lehen minututik defentsa indibidualean jarri ziren kanpotarrak, baina bergararren saskirako sarrerak ikusita zonakako defentsa irekian ipini ziren. Modu honetan ere, ez zuten jakin bergararrak gelditzen eta behin eta berriz saskira sarrerak egin zituzten etxekoek.

Bigarren laurdenean etxekoek lau puntu sartu zituzten bakarrik, eta kanpotarrek 16. Atsedenaldira sei puntuko aldeaz galtzen joan ziren etxekoak. Bergararrek ederki borrokatu zuten bigarren zatian, eta hirugarren laurdenean 12 puntuz jarri ziren aurretik. Azkeneko laurdenean falta asko egiten hasi ziren eibartarrak, markagailuan kontra zuten desabantaila jaisten saiatzeko, baina ezin izan zuten bergararren jokoa gelditu eta falta asko egin zituzten.

Etxekoen aldetik, Gorka Eraña izan zen saskiratzaile nagusia 28 punturekin, baina orokorrean talde guztia ibili zen fin.

Aitor Zeziagaren aurka, ezinean

LACOR
43-49
MUGARRI ALKESA

Lacor | Julian (2), Arrizabalaga, Laria (10), Dominguez, Garcia, Mancha (2), Moreno (21), Iruretagoiena (8) eta Elizburu.

Mugarri Alkesa | Aranzabal (2), Some, Gomez (2), Elorza (8), Arejolaleiba (6), Merino, Zeziaga (30) eta Atxa (1).

Laurdenetako emaitzak | Lehenengo laurdena 16-11. Bigarren laurdena 20-22. Hirugarren laurdena 29-41. Laugarren laurdena 43-49.

Jokin Etxebarria

Kadete mailako derbya modu arraroan hasi zen Bergaran. Hobeto esanda, ez zen hasi. Izan ere, Labegaraietako kiroldegian argindarrik gabe gelditu ziren, eta saskiak jaisteko modurik ez zegoen. Azkenerako konpondu zen guztia, eta 40 minutuko atzerapenaz izan bazen ere, derbya jokatzeko modua izan zen.

JOKIN ETXEBARRIA

Aitor Zeziaga partiduko jaun eta jabe egin zen.

AITOR ZEZIAGA

Mugarri Alkesak baja garrantzitsuak zituen partidu honetarako, eta hasieran igarri zituen. Baina gutxika-gutxika, eta erritmo konstante bat erabiliz, partiduaren jabe egin zen talde arrasatearra. Aspektu honetan, Aitor Zeziagaren lana azpimarratu behar da. 30 puntu egiteaz gain 27 errebote jaso zituen. Ikaragarria berak egindako partidua. Etxekoek ezin izan zuten gelditu, eta bigarren laurdenetik aurrera Mikel Arejolaleiba eta bera izan ziren erritmoa markatu zutenak. Etxekoek ahalegin guztiak egin arren, azkenean Arrasatera joan zen garaipena.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA	
Mugarri Alkesa	Atsedena
SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA	
Candy BKE-Ametsa KA	81-51
Kostkas-Aloña Mendi	74-65
GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA	
Easo B-Mugarri Alkesa	77-51
Zarautz-Aloña Mendi	59-31
Araneta-La Salle	60-62
KADETE MAILA	
Lacor-Mugarri Alkesa	43-49
Aloña Mendi-La Salle	49-46
NESKEN BIGARREN MAILA	
Eskoriatza-Oncineda	73-66
GAZTE NESKAK	
San Patricio B-Aloña Mendi	49-54
Salletarrak-Eskoriatza	43-31
KADETE NESKAK	
Salletarrak-Bergara	28-51
Eskoriatza-Lazkao	39-36

Pilota

• PROFESIONALAK

Pascual ez zen batere fin ibili, Xalak lan asko egin zuen, baina Titinek erabaki zuen partidua

Xalak eta Lasak, ondo hasi zuten partidua, baina Titin ederki aritu zen aurreko koadroetan

TITIN III - PASCUAL
22-20
XALA - LASA III

Iraupena: Ordu bat eta 20 minutu iraun zituen.

Tanteoa: 2-1, 4-3, 5-4, 5-7, 5-9, 6-10, 11-11, 13-11, 13-14, 16-15, 18-15, 19-16, 20-15, 21-18, 22-20.

Jasone Zabala



AINTZANE AGIRRE

Lau pilotariak fin aritu ziren, baina Titin esnatu zenean, partidua berak kontrolatu zuen.

Asperen partidu nagusia benetan polita eta emozioz betea izan zen azken momentura arte.

Partiduan, Lasa eta Xala hasi ziren agintzen, eta hasieratik, joko guztia atzeko koadroetara bideratu zuten, Pascual lan egitera behartuz. Lasa, hasierako tantoetan oso seguru aritu zen eta Xalak ez zuen aurrealdean arazorik nahi; ederki aritu zen pilota atzeratuz.

TITIN PARTIDUAN SARTU ZEN

Hala eta guztiz ere, partidua nahiko berdinduta joan zen, eta ez zen diferentzia handirik egon markagailuan. Urdinek, lan erdiak eginak zituztenean (9-11) Titin agertu zen, eta Tricioko pilotaria orduan hasi zen Pascuali laguntzen, atzeko kuadroetako lana kenduz, eta aurreko koadroetara jokoa eramanez. Orduan, nahiz eta Lasak lan txukuna egiten jarraitu, Titinek bazekien partidua aurrean irabazi beharra zegoela, eta halaxe izan zen. Lasa nekea nabaritzen hasi zen, eta Xalak ezin zuen Titinen tanto amaiera bikainekin.

Partidura ez zen jende gehiegirik hurbildu, baina apustuak asko izan ziren

Amaiera arte egon zen emozioa, baina Titinen azken tantuek erabaki zuten partidua

Tanto luzeak eta gogorrak jokatu zituzten lau pilotariek eta Lasari kosta egiten zitzaion pilotak eramatea; Xalak ezin zuen aurreko joko guztiarekin. 14nako berdinketatik aurrera, gorriek bost tanto egin zituzten jarraian, eta 19 eta 15 ipini zuten markagailua. Bazirudien partidua erabakita zegoela, baina emozioa egon zen azken momentura arte. Pascualek ezin izan zituen pilotakadak eraman eta urdinak 21 eta 20 hurbildu ziren. Partidua emozioz bete zen, baina azkenean tanto borrokatu batean, 22 eta 20ko emaitzaz gorriak irabazle.

Adituen iritzia

"Partiduko gakoa atzean egon da. Atzelari biak ondo aritu dira, Xala gaizki eta Titin fisikoki baju samar. Pascual izan da partiduko jokoa eraman duena, eta Titinek asko galdu du. Xalak ez du gauza askorik egin, eta Pascualek ederki eutsi dio pilotari".

AGUSTIN IÑARRA | PILOTARI OHIA

"Partidu polita ikusi dugu, emozio handikoa azken unera arte. Partiduko onena Lasa izan da. Xala hasieran ondo aritu da, baina gero ez dio pilotari hasieran bezala eman; ez dakit eskuetan min hartu duen edo. Pascualek pilota asko galdu ditu, eta Titin ondo aritu da".

PACO MARTINEZ | PILOTARI OHIA

"Partidu ona izan da. Aurrelariek partiduaren erdira arte ez dute maila ona eman. Atzelariak oso ondo aritu dira. Pascual hasieran ez da ondo ibili, baina gero bai. Partiduko onena Lasa izan da eta atzelariak pilota asko kendu ditu eta ondorioz bizitasunak galdu du".

FELIX AGIRRE | OLALDEKO DELEGATUA

Xakea

Ezin mailari eutsi Arrasatek

Jokin Etxebarria

Arrasate San Andres xake taldeak ezin izan dio mailari eutsi asteburu honetan Orvina taldearen aurka 2-2 berdindu eta gero. Lan zaila zuten, asteburu honetan 4-0 irabazi beharra baitzuten derrigorrez, eta beste emaitza batzuen zain gelditu. Hala ere, pozik daude arrasatearrak egindako denboraldiarekin, eta esperientzia jasotzeko asko balio izan diela ziurtatu ziguten.

AINTZANE AGIRRE

Ezin izan zuten irabazi arrasatearrek txapelketako azken jardunaldian ere.

Karatea

Hamabost umek jardun zuten

Jasone Zabala

Zapatuan Aretxabaletako kiroldegian egindako erakustaldian, hainbat haurrek entrenamenduetan ikasitakoa erakutsi zuten.

ARIKETA EZBERDINAK IRAKASLEAREN ESANETAN

Odilo irakaslearen esanetan, hamabost mutiko aritu ziren ariketa ezberdinak egiten, ordubete inguru, kiroldegiko pilotalekuan. Gurasoak ere gerturatu ziren bertara gaztetxoen abileziak ikustera, eta egin zuten ariketa bakoitzeko, ederki txalotu zituzten gaztetxoak.

JASONE ZABALA

Ariketa politak egin zituzten umeek.

Iban eta Argider Isasti oñatiar anaiak urtarrila aldera hasi ziren pentsatzen Aloñako Igoera probak nolakoa izan beharko zukeen, eta zein motatako antolakuntza beharko zukeen. Dagoeneko ia dena prest daukate, eta pozik daude probak hartu duen oihartzunagatik. Normalean, triatloia egiten duten arren, proba honetan parte hartzeko asmoa daukate. Maiatzaren 1erako eskatzen duten bakarra da, jendea animatu dadila bertaratzera korrikalariak animatzeko.

IBAN ETA ARGIDER ISASTI | ALOÑARA IGOERA MENDI LASTERKETAREN ANTOLATZAILEAK

"Aloñako Igoera klasiko bihurtzea da nahiko genukeena"

Jokin Etxebarria

Nolatan otu zitzaizuen Aloñara igoera proba antolatzea?

Aurreko urtean, mendi lasterketako denboraldiko azkenetako proba baten –ekainean edo izango zen, Lekeition– konturatu ginen, azkeneko lasterketa izan arren, 15 bat oñatiar elkartu ginela.

Orduan hasi ginen ikusten oñatiarren artean mendian korrika egiteko zaletasuna geroz eta handiagoa zela, eta gure artean komentatzen hasi ginen, Oñatin bertan horrelako proba bat antola genezakeela. Gurekin korrika egiten dutenei aipatzerakoan ere ideia ona zela pentsatu zuten, eta horrela hasi zen guztia. Gainera, gure ustez, jendeak aurretik buruan bazeukan horrelako bat, baina inoiz kanporatu gabe.

Gainera, modan jartzen ari den kirol bat da, ez?

Bai, hau dena, duela hiru urtetik ona, Aizkorriko lasterketa hasi zenetik ona, hasi zen indarra hartzen. Lehen jendeak mendira oinez egiten zuen, eta korrika, kalean. Orain jendeak biak batu daitezkeela ikusi du, askok Aizkorrikoa helburu bezala hartzen dute, eta gurea bezalako probak entrenatzeko erabiltzen dituzte.

Baina zuek, berez, duatloia egiten duzue, ez?

Beno, duatloia, triatloia... denetik apur bat egiten dugu. Aldaketa bat behar genuen, eta zerbait ezberdina egitearren, Aizkorriko maratoian parte hartzea erabaki genuen. Hasi eta gustatu. Agian, egindako kirol guztietan parte hartutako probarik politena izan da.

Zeintzuk dira horrelako proba bat antolatzeko eman behar diren urratsak?

Galdera hori gure buruari egiten gabiltza oraindik (barreak). Antolatzen hasi aurretik, federaziotik etorri zitzaizkigun karreraren aurkezpen baten bila, lasterketa egiteko asmoa zegoela entzun zutelako. Guk eman eta euren erantzuna izan zen Euskadiko koparako sartuta geundela dagoeneko. Beraz, kristoren erantzukizuna.

Orduan Aizkorriko lasterketako antolatzaileekin kontaktatu genuen, eta euren laguntzarekin gutxika-gutxika gauzak ateratzen hasi gara. Egia da esperientzia pixka bat ere bageneukala Oñatiko duatloia antolatzen ibiltzetik.

Zenbateko luzera izango du probak gutxi gorabehera?

Lehenengo neurketa egin genuenean 16'5 kilometro irten zitzaizkigun. 8'5 km igotzen, eta 8 km jaisten.

Eta zein da probak daukan zailtasun nagusia?

Lasterketa oso konstantea da, edo igo egiten duzu, edo jaitsi egiten duzu, ez dauka lauan ibiltzeko biderik. Baina, agian, zailtasun handiena, Urtiagainetik gora joan behar diren zatia izan daiteke. Baina jaitsiera bera ere,oso gogorra da.

Zein alde dago Aizkorriko maratoiarekin?

Ez dago konparatzerik. Guk uste dugu bateragarriak direla. Ikusita Aizkorriko proba nahiko gertu dagoela, eta horrekin lehiatzea zaila izango zela, eta ikusita, halaber, jendea lasterketa motzetara gustura joaten dela, pentsatu genuen karrera labur bat egitea, eta Aizkorrikorako prestakuntza gisa balio duena.

Zenbateko desnibela dauka Aloñako probak?

Guztira, 2.016 metroko desnibel akumulatua. 1.013 igotzen .eta 1013 jaisten. 16 kilometrotako proba bat izateko oso gogorra dela esan daiteke.

Denborarekin proba finkatzeko asmoarekin?

Hasieratik dugun helburuetako bat hori da, hain zuzen ere. Aizkorrikoa aparte utzita, mendi lasterketetan Aloñako Igoera klasiko bihurtu nahi dugu. Baina hau, gutxika-gutxika ikusiko da.

Eta zergatik maiatzaren 1ean?

Hasierako asmoa ekainean egitea zen, baina federaziotik esan ziguten ezin zela, eta maiatza hasieran pentsatu genuen, Aizkorrikorako entrenamendu gisa ere balio izateko.

Zenbat pertsona espero duzue?

Hasiera batean, 300 petsonarentzat gabiltza dena prestatzen. Eta ezagunak ere etorriko dira, ibarreko korrikalari ezagunez gain, Andoni Egaña bertsolaria ere etortzekoa omen da lasterketara.



AINTZANE AGIRRE

Isasti anaiak lanean sutsu dabiltza Aloñako Igoera antolatzen. Baita proban parte hartzeko entrenatzen ere.

"Probak 16'5 kilometroko luzera izango du. 8'5 igotzen eta beste 8 jaisten"

"Guztira, 2016 metroko desnibel akumulatua egongo da. 1013 igotzen eta 1013 jaisten"

"Federazioak proba egiteko asmoa geneukala entzun zuen, eta Kopan sartu gintuzten"

"Ibarreko korrikalari ezagunez gain, Egaña bertsolaria ere etortzekoa da"

Maiatzak 29: Aizkorriko maratoia

Aurten ere munduko koparako baliagarria izango da Aizkorriko maratoia, eta joan den urtean bezala arrakasta izugarria izango duela ematen du. 300 lagunek baina gehiagok hartuko dute parte aurtengoan ere. Gainera, Oñatin hilabete lehenago Aloñako Igoera egongo da, proba honetarako entrenamendu baliagarria izango dena. Beraz, gure ibarreko korrikalariek, badute non entrenatu joan den urteko emaitza onak lortu ahal izateko.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Danbakaren biran ia 500 euro batu zituzten Kilomentroendako, egubakoitzean | 25
• Bergarako Udal Musika Bandak hileko emanaldia egin zuen atzo eta Korrikari eskaini zion | 24

Unai Azkarate margolariak erakusketa du zabalik Bergarako Nahikari tabernan | 27

ERAKUSKETA ARETO BERRIA BERGARAN

ARTEA BERGARA | AROZTEGI, XVI. MENDEKO JAUREGIAREN BEHE SOLAIRUAN EGIN DUTE ARETOA ETA MAIATZEAN INAUGURATUKO DUTE

Erakusketa aretoa egin dute Erdi Aroko eraikin zibil garrantzitsuenean

Aroztegi jauregian egokitu berri duten aretoak 200 metro inguru ditu eta herriko artelan paregabea barruan: jauregiko sarrerako atea

Monika Belastegi

Bergarako Udalak Aroztegi etxeko behe solairua birgaitu eta erakusketa areto bihurtu du. Erdi Aroko jauregi ederrak –herrian zutik dirauen XVI. mendeko lehen erdialdeko eraikin zibil garrantzitsuena eta zaharrenetarikoa–, askotariko erakusketak eta formatu txikiko kontzertu eta hitzaldiak hartuko ditu.

Aurrerantzean arte lanak hartuko ditu Aroztegik, baina bera ere artelana da eta ondare kultural garrantzitsua; apartekoa, bai daukan kalitate arkitektonikoarengatik, bai zen familiarena izateagatik. Pedro García de Aroztegik eraiki zuen 1532an eta garai hartako jauregi urbanoen adierazgarri garbia da: hiru altuera ditu, behe solairu nabarmena eta bi solairu. Fatxada nagusia harlanduzko lan xumea da: behe solairuan arku puntadun sarrera dauka eta gainerako bi solairuetan launa leiho daude.

Soiltasun hori arintzeko, baina, egundoko egurrezko tailak daude leihoetan eta atean. Sarrerako atea bera arte lan ederra da, Errenazimenduko harribitxia; adituen esanetan halako gutxi daude Gipuzkoan. Agerian egoteagatik hondatzen hasita zegoen, hala ere, eta Udalak erabaki du atea bere lekutik kentzea eta erakusketa areto egokitu berrian jartzea ikusgai, paretari itsatsita zaharberritu ostean.

> Aparteko ondarea da daukan kalitate arkitektonikoarengatik eta zen familiarena izateagatik

LARRAITZ ZEBERIO

Aretoak kokaleku ezin hobea du. Herri erdian dago, Barrenkalean, herriko plazatik 30 metrora.

200 METROKO ARETOA

Erakusketa aretoa Iñaki Berasategi, Elisabet Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindako proiektua jarraituz egin dute. Dena den, Bergarako Artisten Elkartearen (Beart) iradokizunak ere jarraitu dituzte. Ia 200 metroko azalera du eta baita 50 metroko sotoa ere biltegi eta komunekin. Aurrekontua 250.000 euro ingurukoa izan da.

• ERRENAZIMENDU GARAIKO ARTELAN BALIOTSU ETA DOTOREA DA ATEA

NAHIKO HONDATUTA. XVI. mendearen lehen erdikoa da atea; Errenazimenduko artelan bikaina. Adituen esanetan halako ate gutxi dago Gipuzkoan, baina kale aldera begira egon izanak (ikus goian), asko hondatu du beheko partean, batik bat, eta landutako erliebeak galtzen hasita zeuden. Ondarea babesteko asmoz zaharberritu egin dute.

ARETOAN IKUSGAI. Albayalde enpresak berritu du atea eta 28.700 euroko aurrekontua izan dute lanek –Aldundia 12.000ren kargu egin da–. Jon Berasain Albayaldeko zaharberritzaileak dio zirujauen antzeko lana egin dutela. Berriz honda ez dadin ez da bere lekura itzuliko, areto barruan egongo da ikusgai. Dagoeneko hala dago.

TAILA APARTAK. Bi orriko atea da eta taila ederrak ditu: orrietako bakoitza 24 panelekin dago apainduta eta Céfiroren irudia daukan balaustradak lotzen ditu bi orriok. Panelotan, plateresko aurreratuko motiboak daude: animali bihurtzen diren munstroak... Umeak eta begietan benda duen *sayón*-a dituzten medailoiak ere baditu (irudian).

ERAKUSKETA ARETO BERRIA BERGARAN

INAUGURAZIOA | MAIATZAREN 12AN ZABALDUKO DUTE

Abdon Juaristi zenaren lanekin inauguratuko dute

Mendekoste jaien bezperan irekiko dute, herriak emandako pintore onenetariko baten lanekin

M.B.

Irailean zabaltzekoak ziren arren, lanak uste baino gehiago luzatu dira eta irekitze data atzeratu beharra izan dute. Hala eta guztiz ere, dagoeneko guztia prest dago. Udalak jarri du inaugurazio eguna: maiatzaren 12a, hain justu. Inauguraziokoa egun esanguratsua izatea nahi izan dute eta horregatik Mendekoste jaien bezpera aukeratu dute.



ARTXIBOA

Abdon Juaristi haren estudioan.

ABDON JUARISTIREN LANAK

Erakusketa herriko margolari onenetariko baten lanekin zabalduko dute, Abdon Juaristi zenarenekin (1948-1997). Juaristik marrazki eta pintura ikasketak egin zituen Simon Arrieta eta Moises Eguren bezalako maisuekin eta sari ugari jaso zituen. Erakusketak hainbat lan jasoko ditu eta margolariaren ibilbide artistikoa erakustera ematea izango du helburu: 70. hamarkadan hasi eta 1997. urtera arte.

Bingen de Pedro Bergarako Artisten Elkarteko kide eta erakusketaren antolatzaileetako batek azaldu digunez, garaian garaiko Juaristiren pintura ezagutzeko aukera izango du ikusleak: "Azken denboretako Abdonen margoa oro har, oso atmosferikoa zen, lanbrotsua. Formak delimitatu gabeak ziren, bolumenak kontrastatu gabeak eta kolore argiak erabiltzen zituen. Baina hasierako lanetan, expresionistagoa zen, ukitu kubistekin eta lineak mugatzen zituen. Lan konstruktibistagoak egiten zituen eta erabiltzen zituen koloreak ilunak ziren. Bilakaera hori erakusketan nabaritu ahal izango du ikusleak".

Horrekin batera, gehitu du orain arte ikusi gabeko Abdonen lan batzuk ikusteko aukera eskainiko duela erakusketak.

Juaristiren gainean gehiago jakin nahi duenarendako, webgunea ere badu (euskarazko bertsioa prestatzen dihardute): *www.juaristi.org*.

Juaristiren *Otoño* lana.

> Juaristiren eboluzioa ikusteko aukera egongo da erakusketan

LUIS ABAJO | KULTURA ZINEGOTZIA

"Maila batetik gorako erakusketak jasoko ditu"

M.B.

Zein arduratuko da aretoaren kudeaketaz?

Oraindik guztia lotzeke dagoen arren, batzorde bat eratzen dihardugu: Beart-ek (herriko artisten elkarteak), eta Udal ordezkariok osatuko dugu; horrez gain, litekeena da Benito Cantero argazkilaria ere batzordean egotea. Izan ere, nahi duguna da gutxieneko garrantzia ematea aretoari, hau da, maila batetik gorako erakusketetarako izatea, kategoria batetik gorako erakusketetarako azken batean. Hala, batzorde horren lana izango da erabakitzea zein erakusketa den egokia eta zein ez. Dena den, kultura etxean dagoen aretoak martxan jarraituko du eta areto berrira egokitzen ez direnek kultura etxekoan izango dute lekua.

Zenbat erakusketa egingo dira urtean eta zein iraupenekin?

Bat bestearen ondoren egitea nahi dugu, hutsunerik ez egotea, urte osorako erakusketak programatuta izatea.

Eta zer nolako erakusketak jasoko ditu?

Askotarikoak. Arte espresio guztiak jasoko ditu: pintura, eskultura, argazkigintza, keramika... Edota artearekin lotura hain zuzena ez dutenak, beti ere, lehen aipatzen nuen kategoriadunak.

> "Batzorde batek erabakiko du zein erakusketa den egokia eta zein ez"

> "Kontzertu jakin batzuk, formatu txikikoak, eta hitzaldiak ere egingo dira"

Baina beste erabilerarik emateko asmoa ere baduzue.

Bai, kontzertu jakin batzuk ere han izango dira, kamara kontzertuak eta halakoak, eta baita hitzaldiak ere. Gaur egun osoko bilkuren aretoan egiten direnak, esaterako, hara eramango ditugu. Askotariko erabilera horretan pentsatuta birgaitu dugu aretoa.

Herriko artistek izango dute lehentasunik?

Ez dugu halakorik zehaztu, baina bai, herrikoek lehentasuna izango dute. Dena den, guztiendako da irekia. Erakusketa jarri nahi duenak eskaria egin beharko du kultura batzordean eta batzordeak erabakiko du.

Ondo funtzionatuko duela uste duzue?

Bai, bestela ez genuke zabalduko. Nik uste dut areto hau garrantzitsua izango dela. Bergarak beti izan du tradizio handia artean eta horregatik, hain zuzen, nahi izan dugu Beart elkartekoak inplikatzea. Obrak egiteko orduan ere haiekin izan gara hartu emanean aretoa nola antolatu erabakitzeko.

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ANTZERKIA | **KORRIKA-AEK BEKA ESKURATU DUEN ANTZEZLANA**

Zazpi bekatu nagusiak eta euskara batean Novedadesen

Non. Bergarako Novedades aretoan.
Zenbat jende. 80 bat lagun.
Iraupena. Aktoreek ordubete eta laurden inguru eman zuten taula gainean.

Irati Agirreazaldegi

Korrika kulturalaren aitzakian Euskal Herriko hainbat txokotan antzeztu ostean, Bergarara ekarri zuten zapatu gauean Euskararen zazpi bekatu nagusiak antzezlana. Korrika-AEK bekari esker idatzi du Aizpea Goenagak lan hau.

Novedades aretoko taula gainean Lierni Fresnedo, Mikel Laskurain eta Niko Lizeaga aktoreek zazpi esketx antzeztu zituzten. Esketx bakoitza bekatu nagusi baten gainekoa, beti ere euskararekin parekotasunak eginez.

ZAZPI ISTORIO

Ikusi ziren euskarazko gidoia astunegia zela eta ikasi ezinean zebiltzan aktoreak; Hika hitz egitea sexia dela eta euskaltegira doan ikaslea; Iparraldean parke tematikoa egin nahi duen Bergarako jauntxoa; bilera baten batek euskaraz ez dakielako gaztelaniaz egiten duen bozeramailea; extralurtarrek euskaraz egiten duteneko fikziozko eszena; euskararen alde asko egin ostean ordainik jaso ez eta bere buruaz beste egitea erabakitzen duen idazlea; eta euskal plater bat gertatzen duten sukaldariak.

Esketxen artean bideoak eman zituzten. Umeak euskaraz berbetan; lastima esaten zutena ez zela ongi ulertzen.

Bertaratutakoak gustura. Antzerkiaren oinarrian bekatuak egon arren, bekatuen zentzu iluna azaltzetik harago ikusleei une gustagarri bat pasaraztea du helburu umore giroan egindako antzezlanak, eta lortu zuten.

KONTZERTUA | **UDAL MUSIKA BANDA KORRIKAREN ALDE**

Korrika dela eta antolatutako ekitaldien artean, Udal Musika Bandaren kontzertua izan zen domekan Udal Pilotalekuan. Kanpoan eguzkia egotea ez zen aitzakia izan musika zaleendako, eta 200 lagun inguru gerturatu ziren kontzertua entzutera. *Euskal Festara* martxarekin hasi zuten emanaldia eta *Norma* oberturarekin segi. Hirugarren pieza John Lennonen *Imagine* kanta ezaguna izan zen. Ondoren, *La Cancion del Olvido* zarzuelako aukeraketa eta *Jericho* fantasiazko lana jo zituzten. | I.A.

Rock-and-Roll gaua zapatuan 3.60 aretoan

Arrasateko Chicos Boom eta Shaggy Daddy taldeak aritu ziren nor baino nor

A.G.

Rock-and-rolla izan zen protagonista zapatu gauean Arrasateko 3.60 aretoan. Herriko bi talde zeuden iragarrita eta ez zioten euren publikoari hutsik egin.

Arrasateko diskotekan 250 bat pertsona bildu ziren bi ordu eta erdi inguru iraun zuen kontzertuarekin gozatzeko. Kontzertu animatua izan zen inondik ere.

Lehenak agertoki gainean Shaggy Daddy eta The Trouble-makers taldekoak izan ziren. Indartsu aritu ziren arrasatearrak. Ondotik, Chicos Boom taldearen txanda iritsi zen. Danel, Jon, Enaitz eta Borjak osatzen duten taldeak ere 60 eta 70 hamarkadetako rock-and-rollean oinarritutako kantuak jo zituzten. Gauza bat argi dago: rock-and-rollak badu jarraitzailerik gurean.

AINTZANE AGIRRE

Arrasateko Rock-and-roll taldeak izan ziren protagonista zapatuan.

Bertan salgai

ASTELEHENEKO Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
Elgeta:
•Kioskoa
Bergara:
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
Arrasate:
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Maalako okindegia
•Kurruxko okindegia
Aretxabaleta:
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
Eskoriatza:
•Dorleta liburudenda
Leintz Gatzaga:
•Labidea
Aramaixo:
•Plazako kioskoa
Oñati:
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

KONTZERTUA ESPALOIAN | ELURRA ZELA ETA URTARRILEAN BERTAN BEHERA UTZITAKO DANBAKA BIRAKO KONTZERTUA BARIKUAN EGIN ZEN

Gazteek hasitako gaua beteranoek borobildu zuten Danbaka birako saioan

Aitor Pedrejon, The Five Twisters eta Txuletons aritu ziren. Batutako dirua Kilometroendako izan zen

Non: Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.
Zenbat jende: 150 bat lagun.
Iraupena: hiru ordu inguru.

Larraitz Zeberio

Berandu igo zen jendea Elgetara barikuan. Aitor Pedrejon bergararrari egokitu zitzaion Danbaka Birako kontzertuari hasiera ematea.

Aurretik, Arizmendi ikastolako bi ikaslek jakinarazi zuten Aitor, The Five Twisters eta Txuletons arituko zirela. "ABY-KEM taldeko kide bat gaixorik dago eta ezin izan dira etorri", esan zuten.

Bakarrik aritu zen Aitor eta Espaloian bere uztako zazpi bat kantu abestu zituen. "Bakarkako nire lehen kontzertua da" esan zuen bere emanaldiari hasiera eman aurretik Cool-Panic taldeko partaide ohiak. "Kantu lasaiak dira ikusiko duzuenez".

Maitasuna, udaberria, bakardadea... gai ezberdin asko jorratu zituen Aitorrek bere kantuetan eta ordu erdi pasatxoko saioa egin zuen.

Pixkanaka aretoa betetzen joan zen; tartean Bergaratik igotako Aitorren lagunak zeuden.

AINTZANE AGIRRE

Oñatiko Txuletons taldeko beteranoek emanaldi dibertigarria egin zuten, bai kantuei zein Xabi abeslariaren ateraldiei esker.

IKASLEAK AGERTOKIAN

The Five Twister taldeko boskoteak hartu zuen txanda Espaloiko agertokian.

Arizmendi ikastolako ikasleak dira eta heldutasunez aritu ziren eszenatoki gainean hamazazpi urte inguruko gazte rock zale arrasatear hauek. Rock and roll estilo garbia egiten dute eta sasoi guztietako bertsio ezagunak jo zituzten Espaloian.

Publikoan, ikastetxeko lagun eta jarraitzaile mordoa izan zituzten eta kontzertuari guztiz bestelako norabidea eman zioten. Pena bakarra euskaraz hain gutxi egitea ikastolako ikasleak izanik eta Kilometroen aldeko kontzertua zela jakinik.

> Arizmendi ikastolako ikasleak diren The Five Twisters taldeak rock and roll peto petoa eskaini zuten

TXULETONS BUKATZEKO

Kontzertuko azken taldea Oñatiko Txuletons seikotea izan zen. Ordubeteko emanaldia egin zuten beterano hauek eta hain eurena den estilo berezi eta umoretsuak irribarre ugari eragin zituen entzuleen artean.

> Euren betiko estiloan, Txuletons taldeko beteranoek oso emanaldi xelebrea egin zuten

Lehenik eta behin, taldeko ahotsa den Xabierrek sekulako monologoa bota zuen publikoa zur eta lur utziz. "Todo son polladas (...) yo quiero ser uno más y no uno menos" esan zuen besteak beste.

Kantu errepertorioa ere xelebrea izan zen oso, gehien bat letrak entzunez gero. *Papa me meo*, *Trikitilariak larru jotzaileak dira* eta abar.

Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

Nekazaldia izena hartu zuen, pasa den azaroan, Donostian burutu zen lehenengo nekazal zinema asteak. Ikus-entzunezko baliabideak erabiliz, landa ingurunea gizartean murgiltzea du helburu Munduko Landagunea eta Artzain Mundua erakundeek antolatutako ekimenak. Bihar, martitzena, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Fakultatean aurkeztuko du Iñigo Fernandezek azken 15 urteotan ingurunearen gainean egin diren iragarkien bilduma lana, 60 bat ikasleren aurrean.

IÑIGO FERNANDEZ | PUBLIS NCM PUBLIZITATE AGENTZIAKO KONTU EXEKUTIBO ARDURADUNA

"Nekazal munduaren irudia hobetzeko komunikazioa landu beharko genuke"

Larraitz Zeberio

Zer ikusiko dugu astearteko emanaldian?

Joan den urte bukaeran Munduko Landagunea eta Artzain Mundua erakundeek lehenengo nekazal zinema astea antolatu zuten. Bertan, publizitateak nekazal munduaz eskaintzen duen irudia ere aztertu nahi zutenez, Publis publizitate agentziarengana jo zuten. Azkenean, hitzaldia eskaini nien nik, azken hamabost bat urtetan nekazal munduak publizitatean izan duen bilakaera nolabait laburbiltzeko hogei bat spot aukeratuta.

Zer iruditzen zaizu nekazaritza munduaren garapenaren alde lan egiten duten elkarteak horrelako emanaldien antolaketan interesa jartzea?

Txalotzekoa da Artzain Mundua eta Munduko Landagunea erakundeek baserri mundua kaletarrengana hurbiltzeko egiten ari diren lana. Eta gainera, konturatzen hasi dira komunikazioa ondo lantzeak asko lagun diezaiekeela euren helburuak lortzen.

Nekazaritzarekin lotura duten iragarki sorta osatu duzu astearterako. Asko daude? Berria da iragarleak nekazal mundura jotzea?

Nirea ez da tesi baten moduko lan sakona izan. Donostiako Publizitate Jaialdian azken hamabost urtetan saritu diren iragarkietatik eta guk egindakoetatik nekazal mundua agertzen dutenak bildu eta kronologikoki jarri ditut garapena ikusteko. Betidanik agertu izan da asko baserri mundua publizitatean, eta bitxia badirudi ere, umoreari lotuta gehienetan.

Iragarkietan nekazal jarduerari ematen zaion tratamendua garrantzitsua izan daiteke bere bilakaerarako?

Jakina. Kontua da baserri mundua ez dela enpresa bat, eta ezin dituela kontrolpean izan berari buruz esaten direnak. Dena dela, nire ustez, baserri munduaren irudia zaindu edo hobetu nahi dutenek komunikazioa landu beharko lukete beren eskuetan dagoen guztia egiteko.

Zaila da topikoetan ez erortzea?

Publiko zabal bati mezu jakin bat helarazteko da publizitatea. Gaizkiulerturik gerta ez dadin eta guztiek gauza bera edo oso antzekoa interpreta dezaten, estereotipo askotaz baliatu behar izaten dira. Baina publizitateak, ipuinek bezala, nolabaiteko oinarri sinesgarri bat ere izan behar du, eta beraz, baserri munduko egoera aldatzen joan den heinean, hura erakusten duen publizitatea ere aldatzen joan da.

Arrakasta izan dute. Zergatik zure ustez? Zertan asmatu duzue?

Horietako iragarki asko jendearen ahotan ibili dira, eta batzuk saritu ere egin dituzte. Formula erraza da esaten, zaila egiten: publizitateak entretenitu egin behar du ikus-entzulea bere helburua betetzeko, gozagarria izanez lortu behar du salmenta. Kontuan hartu behar da jendea azkarra dela, jendeari mezua guztiz itxi gabe eman behar zaiola, berak borobildu dezan.

2004an espainiar estatuan banatzen diren Eraginkortasun Sarien zilarrezko izendapena lortu zenuten. Nola neurtzen da iragarki baten eraginkortasuna?

Salmenta kopuruen eta merkatu kuoten bilakaera begiratuz, batetik, eta markaren baloreak zein erakargarritasun maila duen aztertuz, bestetik. Publizitateak eskaintzen dituen emaitzak jendeak uste duena baino neurgarriagoak dira.

Zenbat pertsona aritzen da kanpaina baten prestaketan?

Iragarleen aldeko komunikazio arduradunak eta zuzendaritzakoak, publizitate agentziako kontu arduradunak eta sortzaileak, produkzio-etxeko errealizadore eta langileak, spotean parte hartzen duten pertsonaiak... Ezberdina da iragarki bakoitza, baina hogei bat bai gutxienez.

Zein da prozesua iragarki berri bat sortu behar denean?

Enpresa edo erakunde batek komunikazio arazo, behar edo helburu bat dauka eta publizitate agentzia batekin hasten da lanean. Kontu arduradunok komunikazio estrategia zehazten dugu, sortzaileek ideia asmatzen dute, eta produkzio-etxeko errealizadore egokienekin batera egiten dugu lan. Guztion artean xehetasun guzti-guztiak lotuta egiten dugu dena.

Iragarlearen helburua produktua saltzea da? Esker oneko lana da zure ustez?

Guztiok erabiltzen ditugu egunero pertsuasio teknikak: amari hau eskatzeko, laguna hartaz konbentzitzeko... Askotan gozatu egiten dugu hurkoa limurtzen eta geurera ekartzen.

> "Azken 15 urteotan nekazal munduak publizitatean izan duen presentzia eta bilakaera aztertuko dugu martitzenean"

> "Komunikazioa lantzen hastea oso onuragarria izan daiteke nekazaritza munduaren etorkizunerako"

> "Nekazaritza askotan agertu da publizitatean, eta gehienetan umorearekin lotuta gainera"

> "Publizitateak entretenitu egin behar du. Gozagarria izanez lortzen da produktuaren salmenta"

LARRAITZ ZEBERIO

Iñigo Fernandezek azken 15 urteotan egindako 20 iragarki erakutsiko ditu.

Publis NCM agentziak iragarki arrakastatsuak egin ditu

Publis NCM publizitate agentzia donostiarra da eta gurean oso ezagunak egin diren hainbat kanpainaren sortzailea da: EITBren txapelarena, harri jasotzaile golf zalearena, bakeroena, eskolara zigortuta zihoan gazte harena, enbor jaurtiketarena, Euskadi Gaztearen auto hegalariarena, Radio Euskadirenak, eitb24.com-en paraxutistena, Kaiku esnearen guztiak, Euskotrenen "Ez ote da trena nahi dugula?"; Eusko Jaurlaritzaren "Esanak esan. Euskara", Euskalteleko txirrindularienak... Iragarki horietako askok nekazaritza jarduerak izan dituzte oinarri. Horretaz, hain zuen, jardungo du hitzaldian.



Magia, sabel-dantza eta argazkigintza ikastaroak Arrasaten eta Bergaran

Magia ikastaroa Arrasaten izango da eta Txan, Marsel eta beste zenbait mago ezagunek emango dituzte eskolak

Leire Kortabarria

Arrasateko Udal Gazte Sailak gazteei zuzendutako magia eta sabel-dantza ikastaroak antolatu ditu; magiarena, lehenengo aldiz. Bietako edozeinetarako izena emateko, gazte bulegora jo, 943 77 00 65 telefonora deitu edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* helbidera idatzi behar da. Bietan ala bietan, matrikula 20 euro da, 12 langabe eta ikasleendako.

Magia ikastaroa Xixka Gipuzkoako Ilusionismo Elkarteak emango du apirilaren 7tik maiatzaren 26ra arte, eguenero, 18:30etik 21:00etara bitartean; elkarteko kide ezagunak arituko dira irakasle lanetan, tartean Marsel edo Txan. Sabel-dantza ikastaroak antolatu izan dira lehen ere, Arrasaten eta beste herri batzuetan, arrakasta handiarekin; honakoak hastapen eta sakontze mailak landuko ditu. Jaione Albenizek emango ditu eskolak apirilaren 9tik maiatzaren 28ra bitartean, zapatuero, 10:00-12:00 hasi berriendako eta 12:00-14:00 sakondu gura dutenendako.

ARGAZKIGINTZA

Argazkigintza ikastaroa antolatu dute Bergarako Udalak eta Pol-Pol argazki taldeak. Apirilaren 4tik maiatzaren 11ra bitartean izango da, astelehenetik eguaztenera, 19:15-21:15 ordutegian. Matrikula 40 euro da, 25 ikasle eta langabeendako, eta Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan sartu behar da dirua; gero, agiriarekin kultura etxera joan behar da.

Argazkigintza analogikoa eta digitala, biak landuko dira. Pol-Pol taldeak emango ditu eskolak, euren lokalean, Zabalotegin. Norberak bere kamera eraman behar du praktikak egiteko.

Labur

Mendien eta urruneko lurraldeen gaineko ikus-entzunezkoak

Mendi Astea antolatu du Aloña Mendik Oñatin. Honako ikus-entzunezkoak emango dituzte: gaur, astelehena, *Eskalada Afrikan*, Joxerra Eskibelekin; bihar, martitzena, *Perú, viaje a la puerta del sol*, Mila Gallastegirekin; etzi, eguaztena, *Annapurna, azken zortzimilakoa*, Juan Vallejorekin. Egubakoitzean beste bat izango da. Kultura etxean izango dira, 19:30ean.

Antzuolan, bestetik, Patagoniaren gaineko diapositibak emango ditu Jose Ramon Agirrek eguenean, Olaranen, 19:00etan.

Unai Azkaratek erakusketa du zabalik, egiten duen lehenengoa

Unai Azkarate (Bergara, 1980) margolariaren erakusketa dago Bergarako Nahikari tabernan martxo osoan. Hainbat teknikarekin egindako 17 lanek osatzen dute artista horren erakusketa, egiten duen lehena. Sormen eta irudimen handia ditu ezaugarri.

Gomendatzen Dizut... lehiaketa, Bergarako Gazte Bulegoan ere

Aste Santuko oporretarako gomendioak jasotzeko Gomendatzen Dizut… lehiaketa deitu du Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Baina Bergarako bulegoak ere bat egin du deialdiarekin. Bi herriotan dago parte hartzeko aukera apirilaren 22ra bitartean.

Internet bidezko parte-hartzea indartu gura dute. Horretarako, bi webgune antolatu dituzte: *www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Kultura/info_gazte*, batetik, eta *www.arrasate-mondragon.org/News/1109234906*, bestetik.

Hitzorduak

TXUMA MURUGARRENEN KONTZERTURAKO SARRERAK SALGAI DAUDE |
Oñatin joko du hilaren 18an, egubakoitza, Laixan elkartearen eskutik

Txuma Murugarren kantautoreak kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilak 18, Oñatiko gaztelekuan, eta sarrerak salgai daude 4 eurotan Laixan elkartearen bulegoan eta Guria eta Luis tabernetan. Kultur Errotaren eta Laixanen bazkide kanpainaren barne antolatu dute saio hori.

Sasoi Illunak taldeko partaide ohiak lau disko kaleratu ditu orain arte; azkena, *Nire anaiaren kotxeko argiak*. Bere ibilbidean aurrerapauso handitzat jotzen dute disko hori musika adituek. Gai aldetik ere badago aldaketa bat, izan ere, malenkonia nagusi den arren, mezu baikorrak ere badaude.

ZINEMA |

• *Closer* filma emango dute Arrasaten eta Bergaran
Gaur, astelehena, izango dira bi emanaldiok. Arrasaten, Amaia Udal Antzokian emango dute filma, 20:30ean; Bergaran, Novedades aretoan, 19:30ean.

• *Sólo un beso* filma ikusteko aukera dago Oñatin
Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, sarrera 3 euro da.

• *Ciudad de Dios* filma emango dute etzi Elgetan
Espaloia kafe antzokian emango dute film hori etzi, eguaztena, 21:30ean.

• *Tocando el vacío,* Oñatiko zineklub emanaldian
Eguenean, hilak 17, emango dute film hori kultura etxean, 20:00etan. Jatorrizko bertsioan, ingelesez, emango dute, azpituluekin. 4 euro da.

• *Bagdad rap* filma, egilearen eskutik, Arrasaten
Eguenean, hilak 17, izango da emanaldia Amaia antzokian, 20:30ean, zineklub saioan. Arturo Cisneros zuzendariak aurkeztuko du.

• *2046* filma emango dute Bergarako zineklubean
Eguenean, hilak 17, izango da film horren emanaldia Novedades aretoan, 20:00etan. Sarrera 4 euro da.

DEIAK |

• Literatura Asteko ekitaldiak izango dira Eskoriatzan
Huhezi fakultatean, honako hitzaldiak izango dira: gaur, astelehena, *Mundua zazpi koloretan*, Jon Arretxerekin, 19:00etan; bihar, martitzena, *Literatura beti bidaia baita*, Anjel Lertxundirekin, 19:00etan; etzi, eguaztena, *New York: gosaria diamanterik gabe*, Harkaitz Canorekin, 11:30ean. Eguenean, *28 letra eta 7 nota munduari itzulia egiteko* emanaldia izango da, 19:00etan.

• Kultura Astea egingo dute egunotan Eteon
Oñatiko Eteo fakultateak Kultura Astea antolatu du, honako eskaintzarekin: gaur, astelehena, txotxongilo eta bitxien erakusketa; bihar, martitzena, sagardo eta txorizo jana; etzi, eguaztena, Txa-txa-txat antzezlana, goizean; eguenean, hilak 17, Unai Elorriagarekin topaketa, eta denok idazteko ipuin erraldoia; eta egubakoitzean, hilak 18, Unai Azkarateren musika emanaldia, 10:30ean.

IKASTAROAK |

• *Euskal Herriko nekazal mundua* ikastaroa Gatzagan
Internet ikastaro hori emango dute gaur, astelehena, KZGunean, 09:00etatik 11:00etara bitartean.

• Outlook Express posta programa, ikasgai
Outlook Express posta elektroniko programaren gaineko ikastaroa egingo dute Antzuolan eguenean, hilak 17, Olaran etxeko KZGunean, 09:00-11:00.

ERAKUSKETAK |

• Elisabet Egurenen margo erakusketa dago Elgetan
Elisabet Eguren margolari eibartarrak bere lanen erakusketa du Espaloia antzokian, hilaren 20ra bitartean.

• Pablo Sanaguanoren margo erakusketa dago Oñatin
Pablo Sanaguano Euskal Herrian bizi den ekuadortarraren *Via Crucis* margo bilduma ikusteko modua dago kultura etxean hilaren 22ra bitartean, aste osoan, 18:30-20:30 ordutegian. Oñatiko Parrokiako Misio Taldeak antolatu du.

ANTZERKIA |

• *Patata, Patata!* Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna Elgetan
Bihar, martitzena, egingo dute ikuskizun hori Espaloian, 18:00ean, Korrika Kulturalak antolatuta.

• Peio Añorgak ipuinak kontatuko ditu Eskoriatzan
Peio Añorga ipuin kontalariaren saioa izango da eguenean, hilak 17, kultura etxean, 18:00etan.

Zorion agurrak

ARRASATE
Itziar Ugarte
Martxoaren 11n, 26 urte. Zorionak! Koadrilako eta gainontzeko lagunak.

ARRASATE
Uxue Ezpeleta
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

ARRASATE
Mikel Makazaga
Martxoaren 12an, 19 urte. Zorionak, Maka! Eihari eta familia.

ARRASATE
Iraitz Sarabia
Martxoaren 13an, 4 urte. Zorionak, eta urte askotarako! Izeba Isabel.

ARRASATE
Leire Presa
Martxoaren 13an, 11 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.

ARRASATE
Jon Ajuria
Martxoaren 14an, 26 urte. Zorionak! Eta baitte Ulli, Jabo eta Murgoitiori be!!!

BERGARA
Iker Nogueiras
Martxoaren 8an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki, June.

BERGARA
Olaia Arriola
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Julen Arriola
Martxoaren 12an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Uxue Azkarate
Martxoaren 12an, urtebete. Zorionak! Etxekoak, bereziki, Ane.

BERGARA
Unai Belategi
Martxoaren 14an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Iker Ugarte
Martxoaren 14an, 3 urte. Zorionak! Familiakoak, bereziki, Ainhoa.

BERGARA
Naroa Herrero
Martxoaren 16an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Andoni Bretaña
Martxoaren 16an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Danel Gantxegi
Martxoaren 17an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Leire.

BERGARA
Olatz Olañeta
Martxoaren 17an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

BERGARA
Jasone Zabala
Martxoaren 14an, 26 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Lankideak.

OÑATI
Miren Zubia
Hilaren 14an, 8 urte. Urte askotarako! Josu, Iker, Maite eta Naia.

OÑATI
Marta Leturia
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.

ARETXABALETA
Amaia Bermudez
Martxoaren 15ean, 3 urte. Zorionak eta muxu bat! Aitita eta amama.

ARETXABALETA
Beñat Orobengoa
Martxoaren 15ean, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ARETXABALETA
Iratxe Bengoa
Martxoaren 17an, 31 urte. Zorionak eta urte askotarako! Leire.

ARETXABALETA
Juanan Priego
Martxoaren 11n. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ARETXABALETA
Markel Arana
Martxoaren 15ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

ARETXABALETA
Asier Ingidua
Martxoaren 17an. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ESKORIATZA
Melissa Ferreira
Martxoaren 10ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

ESKORIATZA
Yaiza Exposito
Martxoaren 12an 18 urte. Zorionak Yaiza! Zare *la bonba*! Ekipokoak.

ESKORIATZA
Fernando Raso
Martxoaren 16an urtebetetzea. Zorionak Fernan! Ekipokoak.

ESKORIATZA
Usune Bengoa
Martxoaren 16an, 17 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ESKORIATZA
Maddalen Antuñano
Martxoaren 13an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ARAMAIO
Jon Agirre
Martxoaren 8an, 63 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Irati eta Alaitz.

sms mezuak

- Aizu Aitor! Nondik atera duzu zapatuan zurekin batera zeneukan loretxo hori? Ez al gara ba lagunak. Horrelakoak esan egiten dira, txo!
- Zorionak Maitane. Enteratu gara lortu duzula lanpostua. Zorte pixka bat ere tokatzen zitzaizun, neska!
- Aupa Aloña! Arrasateri lau gol sartu ondoren enteratuko zineten noski atea non den, ezta?
- Zorionak Marta! Atzo ospatuko zenuen urtebetetzea, ezta? Ea gaur zuk ekarritako pastelak dastatzerik daukagun. Lankideak.

Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Jaiotakoak

Oier Carrero Garcia
Arrasate • 3,620 Kg.
Martxoak 6. Gurasoak: Juanan eta Nani (Arrasate). Argazkian: Oier amaren besoetan seko lo.

Andoni Burgos Peralta
Oñati • 3,515 Kg.
Martxoak 6. Gurasoak: Wilner eta Consuelo (Ekuador). Argazkian: lehengusina eta ahizparekin.

Itoitz Biain Gastañaga
Aretxabaleta • 3,740 Kg.
Martxoak 6. Gurasoak: Xabier (Oñati) eta Jasone (Aretxabaleta). Argazkian: Itoitz aitaren besoetan.

Euken Oliveri Lopez
Soraluze • 3,105 Kg.
Martxoak 7. Gurasoak: Francesco (Milan) eta Nuria (Bergara). Argazkian: Euken aitarekin.

Naia Delgado Estrella
Oñati • 2,975 Kg. Martxoak 8. Gurasoak: Jose Antonio (Oñati) eta Mª Carmen (Arrasate). Argazkian: Naia amatxoren besoetan.

Danel Moreno Soto
Bergara • 3,175 Kg.
Martxoak 11.
Gurasoak: Ibon eta Maribel (Bergara). Argazkian: Danel amaren besoetan.

Hildakoak

Florencia Yarza Maiztegi
Bergaran, martxoaren 12an.
78 urte.

Ignacio Sarraua Sarraua
Aramaion, martxoaren 11an.
69 urte.

Herminia Arranz Arranz
Aretxabaletan, martxoaren 4an.
81 urte.

Jose Arana Aranzeta
Arrasaten, martxoaren 12an.
74 urte.

ESKELA

Benita
Larrañaga Sarraoa
Patxi Balentziaga Elorbururen alarguna

Bergaran hil zen 2005eko martxoaren 13an, 79 urte zituela.

Hileta elizkizuna San Pedro parrokian egingo da gaur, astelehena, martxoaren 14a 19:00etan.

Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.
—
Oharra: Gorpua Bergarako beila-etxean egongo da.

Bergaran, 2005eko martxoaren 14an.

ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN
82 euro
943 76 92 71

nolako ikasketak,
halako lana*

* **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak** egindako ikerketaren arabera, MONDRAGON UNIBERTSITATEan ikasitakoen %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, bataz beste bi hilabeteren buruan.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Korrikarekin bat, eta Literatura jardunaldiak
Irratiko autobusak Korrikako furgonetarekin bat egingo du egunero, 10:05ean, jarraipen zuzena eginez. Huezik antolatu dituen Literatura eta bidaien gaineko jardunaldiak berbagai izango ditu Arantza Ozaetak; eta Anartz Agirrek kazetariak, berriz, Eibar taldea.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Tokiko Agenda 21en gaineko elkarrizketa
Oñatiko Tokiko Agenda 21 jendaurrean aurkeztu dute, eta apirilean herritarrek lantaldeak egingo dituzte kontu hori eztabaidatzeko. Horren guztiaren gainean elkarrizketa egingo diote Joxe Fernandez alkate ordeari.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

Eguneko albisteei gainbegiratu sakona

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Oskorrik umeendako argitaratu duen diskoa

Radio Euskadi
FM 98.2

'Bulevar' | 09:30

Confebask-eko Guillermo Zubiari elkarrizketa

Gaur telebistan

GOITB

Patxi Zabaleta politikaria 'Ilunpean'-en 14:30
Politikari, idazle eta abokatu Patxi Zabaletari elkarrizketa egingo dio Oihana Elortza kazetariak.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Fernando Amezketarra* eta *Lazkao Txiki.*
14:15 *Berriak.* Gorka Etxabek gidatutako albistegia.
14:30 *Ilunpean.* Patxi Zabaletari elkarrizketa zabala egingo dio Oihana Elorzak. Zabaleta HBren sorreran ibili zen, eta azkeneko urteotan Aralarreko buru da. Idazlea eta abokatua ere bada.
15:00 *Gure lanbide zaharrak.*
15:30 *Berriak.* Errepikapena.
15:45 *Klip@.* Musika taldeen bideoklipak.

19:30 Emisio hasiera.
19:35 *Gaurkoak.*
19:45 *Klip@.*
20:00 *Berriak.* Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak.
21:00 *Harmailatik.* Kirolen gaineko saioa. Julen Iriondo aurkezlearekin.
21:30 Auñamendietan. *Russelen obsesioa.*
22:00 *Albistegia.*
22:30 *Harmailatik.*
23:00 Auñamendietan.
23:30 Gaurkoak.
23:45 Emisio amaiera.

ETB 1

Umorea barrabarra 'Ze Kosmopolita'-n 22:20
Aintzane Gamizek eta Iñaki Beraetxek aurkezten duten programa horretan, esketx umoretsuak egiten dituzte.

06:55 Tik-Tak circus.
07:25 Betizu. *Munduko futbol txapelketa, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin aspertua* eta *Euli ipuinak.*
09:05 E-klipse@.
09:30 Elkartasunaren bideak.
10:15 Bidaide.
12:00 Bertatik bertara.
12:30 Hitzetik hortzera.
13:10 Barne barnetik. *Usurbil.*
13:35 Betizu. *Burdin aho.*
14:00 Gaur egun 1.
14:40 Postdata.
14:45 Eguraldia.
14:50 Hasiberriak. *Itzali piztzu.*
15:20 Bidaide.
17:05 Sustraia.
17:35 E-klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu. *Beekerekeak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen* eta *Shin Chan.*
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur egun.
21:05 Bertatik bertara magazina .
21:40 Goenkale.
22:20 Ze kosmopolita.
23:40 Ero eta bero.
00:45 Teknopolis.
01:15 Eguna iruditan.
01:20 Postdata.
01:25 Egi bidean.
01:30 Bakarrik...

ETB 2

Mitxel Ezkiaga gonbidatua 'El Forum' saioan 21:55
Mitxel Ezkiaga kazetaria izango da gonbidatua David Barberok aurkezten duen *Forum* programan.

07:10 Oficios tradicionales.
07:40 Rutas de solidaridad. *Chile: Tierra y mar.*
08:05 Embrujada.
09:00 Forum. David Barberorekin.
09:30 El punto. Juan Luis Bikuñarekin.
10:20 Matrimonio con hijos. *Tornado y suciedad* eta *Castigo.*
11:10 Stargate. *Revelaciones.*
12:15 Se ha escrito un crimen. *Respuesta armada* eta *Asesinato en el Oasis.*
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.
18:25 Siempre cine. Wall Stree.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 El conquistador del fin del mundo.
00:00 El día en imagenes.
00:05 Vascos en Uruguay.
01:05 La zona muerta. *El chamán* y *Descenso.*

TVE 1

Ijitoekin arazoa, 'Cuéntame cómo pasó' telesailean 18:30
Trantsizio garaian kokatutako telesail arrakastatsu horretan, gaztetxoenek arazoak izango dituzte ijitoekin.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1.
15:45 Diez líneas de El Quijote.
15:55 El tiempo.
16:00 Te voy a enseñar a querer.
17:30 Obsesión.
18:30 Cuéntame cómo pasó. *Reza.*
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:45 Diez líneas de El Quijote.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *Un muerto muy vivo.*
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin. Errepikapena.
01:30 Telediario 3.
02:00 Deporte.es.
02:30 Siete días.
03:30 Canal 24 horas albistegia.

La 2



Arte Eszenikoen Max sariak Guadalajaratik 21:00
Guadalajarako Buero Vallejo Antzokian Arte Eszenikoen Max sariak banatzeko ekitaldia egingo dute.

07:30 Los Lunnis. *Meme y el señor Bobo, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 TV educativa: La aventura del saber.
11:00 La botica de la abuela.
11:15 España.es. Mon Santisorekin.
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Artur, Los Lunnis* eta *Los minimonstruos.*
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:45 Grandes documentales. *La bestia en cautividad.*
16:55 Frontera límite.
17:30 Los Lunnis. *El fabuloso mundo de los hechizos, Los Lunnis* eta *Mundo perdido.*
19:15 Padres en apuros. Veronica Mengodekin.
19:30 Pueblo de Dios. *Cáceres, ciudad abierta.*
20:00 Informativo territorial.
20:30 UEFA Champions League.
21:00 Premio Max de las Artes Escénicas.
23:30 Presentación Plan ADO.
00:00 Extravagario. Javier Rioyorekin.
01:00 Metrópolis.
01:30 Los conciertos de Radio-3.

Antena 3

John Wooren film bat 'El peliculón'-en 21:45
Akziozko film gogorrak egiteko orduan oso ukitu pertsonala duen John Wook zuzendutako *Windtalkers* lana.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa.
10:45 Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak egiten dituzte.
14:30 Los Simpson. *La culpa es de Lisa.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La vida es rosa.
17:00 Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiez osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin.
20:15 Pasapalabra. lehiaketa. Gonbidatuak: Poli Rincon, Emilio Oliva, Arantxa Bonete eta Kira Miro.
21:00 Noticias 2. Matias Prats eta J.J. Santosekin. ONCEren sariketa emango dute.
21:45 El peliculón. *Windtalkers.* Akziozko filma. Zuzendaria: John Woo. Protagonistak: Nicholas Cage, Adam Beach...
00:45 7 días, 7 noches.
02:00 Noticias 3.
02:50 Televenta.
05:00 Errepikapenak

Tele 5

Karlos Argiñano 'El programa de Ana Rosa'-n 10:45
Karlos Argiñanok azalduko du zelan egin daitezkeen alkatxofak txanpiñoiekin eta galeperren arrautzekin.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute. Alkatxofak txanpiñoiekin eta galeperren arraultzekin egingo ditu.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 Gran hermano VIP. Laburpena.
17:30 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:35 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:30 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Cuerpos hogareños.*
23:00 Especial 11-M. Gertaera haren gaineko erreportaje zabala.
00:00 Cronicas marcianas.
02:20 Informativos Telecinco.
02:45 Madrugada de cine. *Pacífico Sur.*

Astean GOITBn

Astelehena, 14

'Auñamendietan' | 21:30

Russelek zabaldutako koben gainekoa
Orain dela 100 urte pasatxo, Russel kondea Pirinioez maitemindu zen. Mendi bat erosi zuen, kobak eraiki zituen han, eta hara joan zen bizi izatera.

Martitzena, 15

'Korrika 13' | 21:00, 22:30

Orain dela bi urteko Korrikaren erreportajea
14. Korrika ibarrera helduko den egunaren bezperan, GOITBk orain dela bi urteko Korrikaren irudiak eskainiko dizkigu, giroa berotzen hasteko.

Eguaztena, 16

'Rallysprinta' | 21:30, 23:15

Gabiriako Rallysprintaren laburpena emango dute
Zapatuan Gabiriako VII. Rallysprinta egin zuten. Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria zen, eta inguruko auto gidaririk onenek esku hartu zuten.

Eguena, 17

'Korrika 14' | 21:30, 22:30

Korrikaren gaineko erreportajea
Eguaztenean GOITBko kamerak Korrikaren atzetik ibiliko dira ibar osoan. Horren gaineko erreportaje bizi-bizia eskainiko dute biharamunean.

Egubakoitza, 18

'Ilunpean' | 21:00, 22:30

Jon Arretxeri elkarrizketa egingo diote
Basauriko Jon Arretxe idazlea GOITBko platora joango da egubakoitzean. *Ostegunak, Ostiralak* eta beste hainbat liburu idatzi ditu eta elkarrizketa egingo diote.

Martxoak 14a: 035 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, martxoak 14, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

035 zozketa saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Juan Martin Elexpururen BERGARA ALDEKO HIZTEGIA.
- Juan Ramon Perez Lazpita (Bergara)

Martxoaren 18an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den PEREZ Y FERNANDEZ antzerkirako bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).
- Susana Garcia Martin (Eskoriatza)
- Alcazar taberna (Eskoriatza)

Eibar - Tenerife futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Jose Miguel Gonzalez (Arrasate)
- Joxe Elorza (Eskoriatza)
- Imanol Mondragon (Bergara)
- Ines Palomo (Eskoriatza)
- Gorka Arizmendiarrieta (Elgeta)
- M. Ines Txintxurreta (Bergara)

Martxoaren 21eko sariak

- Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA.**
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

EIBAR-PONTEVEDRA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)

ASTELEHENEKO
Goienkaria
Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
martxoaren
14a

Goizean: Eguzkia
Arratsaldean: Tarteka lainoak

Hamarrekoa

JOSE MARI ORMAETXEA I KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEETARIKO BAT

"Arizmendiarrieta oso luzea zen, Grecoa zirudien; injustiziez berba egiten zigun"

Maria Agirre

1. Arrasateko kooperatibismoa 50 urte betetzear, eguenean Diputazioak Urrezko Domina emango dizue. Urduri? Oso. Ilusioa egiten dit, baina horrelako ekintzak ez zaizkit gustatzen. Jendetzarekin larritu egiten naiz. Alfonso Gorroñogoitiak egingo du hitzaldia, ni neu ez naiz gai izango eta.

2. Duela 50 urte... 28 urte nituen, eta Zerrajeran, fundizioko buru nintzen. Gurasoekin bizi nintzen, eta oraindik ez nuen ezagutzen gaur egun emazte dena, Maite.

3. On Jose Maria Arizmendiarrieta ordurako ezagutzen zenuen, ezta? 14 urterekin ezagutu nuen. Gizon luzea zen, metro eta laurogei neurtzen zuen, eta argala. Grecoa zirudien; injustizien inguruan egiten zigun berba.

4. Ez duzu euskaraz berba egiten. Amaren gurasoak Goroeta eta Arkarazokoak ziren, euskaldunak. Baina Gasteizera joan, eta ama erdal giroan hazi zen. Mondragoera ezkondu arren, etxean gaztelania nagusitu zen.

5. Baina euskara ulertzen duzu. Irakasle batekin lehenengo, eta ondoren Arantzazun, euskara ikasten ibili nintzen. Ilobei egiten diet euskaraz, baina aurpegi arraroa jartzen dute.

6. Kooperatibismoak aberastasuna, lana eta beste hainbat onura ekarri ditu. Kalteak? Filosofo batek esaten zuen: txiroak aberats bihurtzean, txiroekin ahaztu egiten direla. Debagoiena eskualde aberatsa da, baina behartsuak ere badirela ahazteko arriskua dago.

7. Sariak jasotzerakoan, emazteak egindako lanak goraipatu nahi izaten duzu. Sei seme-alaba izan ditugu. Eta emazteak daki bakoitzak zein gaixotasun izan zuen. Nik neuk, berriz, ez dut ezer oroitzen. Atzera egin, eta Maitek izugarrizko meritua izan zuela ikusten dut.

8. Arizmendiarrieta apaiza, baina hark ere emakumea alboan. Lehenengo ama, Tomasa, eta ondoren Eulogi, berarekin bizi zen emakumea. Esaten zuen amaren ordezkoa zela Eulogi.



AINTZANE AGIRRE

Sasoian topatu dugu Jose Mari Ormaetxea. 78 urterekin, astean birritan frontoian aritzen da, pilotan. Kirola egin eta ikusi. Realzalea da, futbola oso gustuko du. Erretiratuta, baina oraindik lanean. Goizeko 7ak baino lehenago jaikitzen da, emazteari gosaria prestatu, eta berak gosaldu ondoren, egunkaria irakurri eta Otalorara joaten da lanera.

9. Noiz erosi zenuen etxerako lehenengo hozkailua? 1966an, uste dut. Italiara joan ginen patentea sinatzera, eta han horrenbeste hozkailu egiten ikusita, pentsatu nuen: halako bat izango banu...

10. Familiarteko batzuek Jabier Ortubai gogora ekarri dute. Hura ere fundatzaile izan zen, baina sei hilabetez egon zen gurekin. Haren lorpena Gasteizko Kemen lantegia izan zen, eta ez MCC.

Biharamuna

Maria Agirre

Begien gozatua

Aspertzeraino egin du elurra, baina asteburuan eguzkiak egin digu bisita, eta maluta zuriek egindako lana agerian geratu zaigu. Mendiek esne-gainez estalita ziruditen. Hala zegoen Urbia ingurua. Zapatuan izan nintzen, **Nerea** lagunaren gomendioari jarraituz; hura aurreko asteburuan izan zen, eta elurrak Urbiako fonda estaltzen zuela esan zidan. Nik bezala, beste askok ere izan zuten Urbian zen ikuskizunaren berri, eta zapatu eta domekan jendetza hurbildu da. Fondako **Ruper** eta lankideek, palak eskuetan, gogor lan egin behar izan dute etxeari sarrera egiteko. Metrotik gora elur bazen. Kableak begien parean, seinaleak belaunetik behera… inoiz baino gorago ibili ginen Urbian. Udaberrian joan behar, eta erreferentzia horien parean jarri, elurtea zenbatekoa izan zen jakiteko. Fondan, Oñatiko **Urdi**nekin egin nuen topo. Hura ere liluratuta, eskiekin egin zuen zeharkaldia zela eta. Ez zen bakarra. Makina batek eskiak eraman zituen. Elurra, bertatik bertara.

Mendian jendetza, baina herrian ez hainbeste. Oñatin izan nintzen zapatu gauean, eta giroak behera egin duela iruditu zitzaidan. Tabernak inoiz baino handiagoak. Botelloia izango ote da arrazoia? Ari da taldetxo bat botelloia bultzatu guran Oñatin, tabernetan edariak garesti daudela arrazoituz, eta jendea ezagutzeko beste esparru batzuen bila. Oraindik mendietan elurra, hotz egiten du kalean edan eta berbetan egoteko. Udaberria, baina, badator, eta dena lehertu eta urtuko da.

Bai, nahi dut.

Ezkontzen gaineko gehigarria,
martxoaren 18an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Troko jantzi denda • Amuebladora Mondragonesa • Baster jantzi denda • Lasagabaster • Guztiz eder estetika zentrua • M. Jesus argazkilaria • Etxe Aundi jatetxea • Corte Blanco jantziak • Lilura estetika zentrua • Barceló bidaiak • Lore lurrindegia eta estetika zentrua • Zubiaga bitxitegia • Sastreria Mujika • Mendigoikoa jatetxea • Gemes estetika zentrua • Lasa jatetxea • Bea lentzeria • Joseba jatetxea • Iker sukaldeak • Eroski bidaiak • Makatzeta jatetxea • Jean Louis David ile apaindegia • Marga jantziak

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA